

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos</p>	<p>Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak eta ALHan ari diren atzerrian eraturiko errenta egozketaren araubideko erakundeak)</p> <p>2018. URTEA</p> <p>INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK</p>	<p>EREDUA</p> <p>200</p>
---	--	--

ARAU OROKORRAK

1. Sozietateen gaineko Zergaren aitorten-likidazioa laguntza programa honen bidez egin eta aurkeztu behar dute Arabako Lurralde Historikoko arautegia aplikatzen zaien erakundeek.

Arabako Lurralde Historikokoa ez beste arautegiren bat (lurralde erkidekoa, Bizkaikoa, Gipuzkoakoa edo Nafarroakoa) aplikatzen zaien erakundeek ezin dute aurkeztu Sozietateen gaineko Zergaren aitortena programa honen bidez.

2. Aurkezteko epealdia (37/2013 FA, 126. art.): aitortena zergaldia amaitu ondoko sei hilabeteen ondoko 25 egunetan aurkeztu behar da.

Baldin adierazitako epearen hasieran, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ez badu artean zehaztu zergaldi horretako aitortena nola aurkeztu behar den, aitortena aurkeztu beharko da aurkezteko modua ezartzen duen xedapena indarrean sartu eta hurrengo 25 egun naturalen epearen barruan. Dena den, horrelakoetan zergadunak aukeran izango du aitortena aurreko paragrafoan adierazitako epean aurkezteko, baldin eta aurreko zergaldiko aitortenerako ezarritako betekizun formalak betetzen baditu.

3. Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoa aplikatuz, zerga administrazio honetako zerbitzu eskudunek aitortenak eska ditzakete, bai eta aitortenak zabaltzeko eta haietan ezarritako aurrekariak frogatzeko eta aurkitutako akatsak zuzentzeko ere, Zerga likidatzeko eta egiaztatzeko beharrezkoa izanez gero.
4. Aplikatzen den arautegian ezarritakoaren arabera aitortenarekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazio osagarria, edo zergadunak bere borondatez gehitu nahi duena, telematikoki aurkeztu behar da PDF, TIF, TIFF, JPG, edo JPEG formatuan "aldundidigitala" webgunearen bitartez, aitortenaren fitxategia bidalita.

OSO GARRANTZITSUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauko 127. artikuluan xedatu den bezala: "Aitortena aurkeztearekin batera, subjektu pasiboek zorra zehaztuko dute, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatuak erabakitako tokian eta moduan ordaindu beharko dute".

AITORPENAREN KONFIGURAZIOA

Erakunde mota: definizioa

Erakundea nolakoa den adierazi behar da; aukera hauek daude:

- Aseguru erakundeak edo BGAEak
- Talde inbertsioko erakundeak.
- Kooperatibak, kreditu edo aseguru kooperatibak izan ezik.
- Gainerakoak

Kontuen egoera orriak

Baldin eta erakundeak ondokoetako bat hautatzen badu:

- Balantzea, galera eta irabazien kontua eta ondare garbiaren aldakuntzaren egoera orria modalitate laburtuaren arabera aplikatzea edo mikroenpresa, enpresa txikia edo ertaina izaki, ETEen Kontabilitate Plan Orokorra aplikatzea, lauki egokietan adierazi behar du.

Aldiz, aurreko bi aukeretako ezein hautatzen ez badu, berariaz ezarritako laukietan "modalitate arrunta" adierazi beharko du.

OSO GARRANTZITSUA

Aitorpenaren konfigurazio taulan hautatutako aukerak ezingo dira aldarazi behin onartu botoia sakatu eta aitorpena osatzen hasita.

1. ORRIALDEA: ENTITATE AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA SARRERA EDO ITZULKETA DATUAK

Erakundearen legezko ordezkaritza

Aitorpenean erakundearen ahaldunak agertu behar dira (haien kopurua eta ahalmena nahiko izan behar dira), bakoitzak bere identifikazio datuak dauzkala.

Aitorpenaren emaitza itzulketa jasotzeko eskubidea

Itzulketari uko egin nahi izatekotan, 001 gakoa, horrexetarako soilik dena, "X" batez markatuta adierazi behar da.

37/2013 Faren 126.1 artikuluko 3. paragrafoak jasoriko aukeraren arrazoia

Zergaldiaren hasiera data, aitorpenean zehaztua, 2019ko ekitaldiari dagokionean, goitibeherako bat irekiko da, bertan adierazteko zergatik amaitzen den zergaldia eta zergatik hautatzen den aurreko ekitaldiko programa aitorpena aurkezteko.

Erakunde mota: definizioa

Erakundea nolakoa den adierazi behar da; aukera hauek daude:

- Aseguru erakundeak edo BGAEak
- Talde inbertsioko erakundeak
- Kooperatibak, kreditu edo aseguru kooperatibak izan ezik.
- Gainerakoak

Atal honetan aitorpenaren konfigurazioan hautatutako aukera agertzen da.

2. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

AITORPENEN JARDUERA (EDO JARDUERAK) ZERGA ARAUBIDE BEREZIAK ETA AITORPENAREN EZAUGARRIAK

Egindako jarduerak

Erakundeak egindako jarduerak adierazi behar dira (gehienez lau) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeak jarrita. Zergaldian diru sarrera osoen zenbateko handiena eman duena jarduera nagusia izango da.

Erakundearen langile plantilla

Datu hauek adieraziko dira: ekitaldian guztira izandako plantillaren batez bestekoa, egungo eta aurreko ekitaldiko kontratu finkodunen batez bestekoa, egungo eta aurreko ekitaldiko lan kontratu finkodunen batez bestekoa eta lan kontratu finkodunen gehieneko kopurua ekitaldiko zernahi egunetan.

Higiezinak alokatu, salerosi edo sustatzeko, lanaldi osoan eta dedikazio eksklusiboan ari den plantillaren batez bestekoa eskatzen da. Ekitaldian lan kontratuko langilerik egon ez bada, (086) laukitxo "X" batez markatuko da.

Zerga araubide bereziak eta aitorpenaren ezaugarriak

Erakunde aitortzailearen zerga araubide berezia zehaztu behar da "X" jarrita behar den laukian. Halaber, beharrezkoa izanez gero, erakundearen izaera zehaztu behar da laukian jasotako aitorpen ezaugarrien artean. Batez ere:

- Erakundea sozietate taldeen araubidean badago, nagusia zein menpekoa izan, taldearen zenbakia adierazi behar da berriaz ezarritako laukian (013). Gainera, behar den laukian erakundea nolakoa den zehaztu behar da: nagusia edo menpekoa (014 edo 015). Baldin talde fiskalaren ordezkaria ere bada, (077) laukia bete beharko da.
- Erakundea "mikorenpresa", "enpresa txikia" edo "enpresa ertaina" bada, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauko 13. artikuluko 1., 2. eta 3. idatz zatietan xedatutakoaren arabera, sailkapen horri dagokion gakoa jarri behar da: 074 edo 020 edo 021, hurrenez hurren. Halaber, erakundea "enpresa handia" bada, "X" batez markatu behar da 022 laukia.
- (080) laukia kasu honetan markatu behar da: ekonomia intereseko talde batera egindako ekarpenak ezaugarri bereziko ondare tresnatzat jo behar direnean.
- 3. orrialdeko B atalean ("Aitortzaileak beste entitate batzuetan dauzkan partaidetzak") % 50etik gorako partaidetza jartzen bada, programak (040) laukia "Merkataritza taldeko entitatea (Merkataritza Kodea, 42. art.)" markatzeko eskatuko du. Hala ere, entitateak uste badu ez dituela betetzen Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezartzen diren baldintzak eta, beraz, ez dela merkataritza talde bateko kidea, (9968) laukia markatu ahal izango du (040) laukiaren eskuinean dagoen goitibeherako menuan.

Datuak 24. orrialdeko bigarren taulan agertuko dira.

Ordezko aitorpena

Baldin eta aurretik zergaldi bereko beste aitorpenen bat aurkeztu bada eta aitorpen berriaren xedea hartan adierazi ez ziren datu berriak sartzea edota aitorpenean sartutakoak zuzentzea bada, aitorpena ordezkoa dela adierazi behar da 034 laukia "X" batez markatuta. Beraz, ordezko aitorpenean eredian eskatzen diren datu guztiak adierazi behar dira, lehen aitorpenean (eta hurrengoetan, besterik izan bada) adierazitakoei datu berriak gehituta.

(034) laukia markatzen bada (9961) laukia zabalduko da, non aurreko aurkezpen zenbakia adierazi behar den.

Kontuen egoera orriak

Aitorpena konfiguratzean hautatuko modalitatea agertzen da (arrunta, laburra eta ETE) balantzea, aldaketa egoera ondare garbian eta galera eta irabazien konturako.

3A ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ADMINISTRATZAILEAK, ZUZENEKO PARTAIDETZAK, BAZKIDEAK EDO PARTAIDEAK

A.- Administratzaileen zerrenda

Atal honetan aitorpena aurkezteko datan erakundearen zuzendaritza, administrazio edo kontroleko karguetan ari diren pertsona fisiko edo juridikoak zerrendatu behar dira, eskatzen diren datu guztiak adierazita.

F/J zutabea: Pertsona fisikoa bada, F jarri behar da; pertsona juridikoa bada, J.

R/X zutabea: Espainiako lurraldeko egoiliarra bada, R jarri behar da; ez-egoiliarra bada, X.

B eta C.- Aitortutako zergaldiko azken egunean aitortzaileak beste sozietate batzuetan eduki dituen zuzeneko partaidetzak eta beste pertsona edo erakunde batzuek erakunde aitortzailean eduki dituztenak.

Ondoko erakunde eta pertsona hauei buruz eskatzen diren datuak azaldu behar dira: erakunde aitortzaileak kapitalaren % 5 (edo % 1, partaidetutako sozietateen baloreak bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badira) baino gehiagoko partaidetza daukan erakundeak; erakunde aitortzailearen kapitalean % 5 (edo % 1, sozietate aitortzaileen balioak bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badira) baino gehiagoko partaidetza daukaten pertsona edo erakundeak.

Sozietate aitortzaileen balioak bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badira, X batez markatu behar da 3540 laukia.

Erakunde aitortzaileak beste erakunde baten kapitalaren % 5 edo %1 baino gehiago ez badauka, X batez markatu behar da 3505 laukia.

Erakunde aitortzailean adierazitako mugetara (% 5 edo %1) iristen ez den partatzaidea maila duten bazkide edo partaideak badaude; 3530 laukia markatu behar da.

3B ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ESTABLEZIMENDUEN ZERRENDAA

D.- Establezimenduen zerrenda

Erakundeak jarduera egiten duen establezimenduak zehaztu behar dira.

Establezimendu mota zutabea. Lokalak propioak (PR), alokatuak (AL) edo lagatakoak (LA) diren zehaztu behar da. Azken bi kasuetan, alokatzaileaz edo lagatzaileaz eskatutako datuak jarri behar dira, bai eta errentamenduaren urteko zenbatekoa ere (BEZ gabe), halakoetan.

GARRANTZITSUA

Lotutako pertsona edo erakundeekiko eragiketei buruzko informazioa, aktibo ukiezin jakin batzuetatik (11/2013 Foru arauaren 37. Artikulua eta 19. XedapenIragankorra) eta paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak dagokie informazioa, 2016ko ekitaldira arte 200 ereduan sartzen zena, 2017ko ekitalditik aurrera 232 eredu berrian aitortuko da, zeina aurkeztu beharko den eman beharreko informazioa dagokion zergaldia amaitu osteko hurrengo hamar hilabeteen ondorengo hilean.

4. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

37/2013 FA-aren VI. TITULUAREN III. KAPITULUAREN ARAUBIDE BEREZIAK

Orrialde hau Espainiako eta Europako ekonomia intereseko taldeek, eta aldi baterako enpresa elkarteek soilik bete behar dute.

Sozietateen gaineko zergaren erregelamenduaren 41. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (41/2014 Foru Dekretua), Espainiako eta Europako ekonomia intereseko elkarteek eta aldi baterako enpresa elkarteek informazio hau beteko dute:

Zerga oinarrien egozketa ehunekoa

3600 laukian erakunde aitortzaileak bertako bazkideei edo bazkidetasunak berekin dakartzan eskubide ekonomikoak dauzkaten pertsoneri (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga edo Sozietateen gaineko Zerga ordaintzeko eginbehar pertsonalagatik subjektu pasiboak direnei) dagozkien zerga oinarrien eta gainerako likidazio kontzeptuen egozketa ehunekoa jarri behar du.

Erakunde aitortzailea ekonomia intereseko Espainiako taldea bada, egozketa ehunekoa Espainiako lurraldeko egoiliar diren bazkideei dagokiena izango da.

Aldi baterako enpresa elkarteak bada eta behar den erregistro berezian errolatuta badago, egozketa ehunekoa Espainiako lurraldeko egoiliar diren enpresa kideei dagokiena izango da.

Erakunde aitortzailea ekonomia intereseko Europako taldea bada, ez du ezer jarri behar lauki honetan.

Egozketarako zehazten den ehunekoa sozietatearen estatutuetan ezarritako proportzioaren arabera izango da edo, horren faltan, egozketa jasan behar duten pertsonen kapital sozialean duten partaidetzaren arabera, kontuan hartuta erakunde garden aitortzailea zergaldiaren azken egunean eginbehar pertsonalagatik Zergaren kargapean dagoen edo Espainiako lurraldeko egoiliarra den.

Egozketa ehunekoa zenbaki osoa ez bada, bi hamartarrekin adierazi behar da.

Kontabilitateko emaitza

Lauki honetan aitortutako zergaldian lortutako kontabilitate emaitza jarri behar da.

Erakundeak kendu ez dituen finantza gastu garbiak

Erakundeak 37/2013 Foru Arauaren 25.bis artikuluan ezarritako mugak aplikatzearen ondorioz kendu ezin izan dituen finantza gastu garbiak adieraziko ditu, hurrengo ekitaldietan kendu ahal izateko.

Zerga oinarria

Laguntza programak aitortutako zergaldiko zerga oinarriaren zenbatekoa jarriko du.

Kenkariak

Erakundeak, kalkulu oinarri gisa, aitortenari dagokion zergaldiaren kuotak jasandako kenkari oinarrien zenbateko osoa sartuko du bere klabeetan.

Erakundeak jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak

Erakundearen zerga oinarria positiboa zein negatiboa izan, zergaldian aplikatu zaizkion atxikipenen eta konturako sarreraren guztirako zenbatekoa adierazi behar du beraien laukietan [(3621), (3623) y (3625) laukiak].

Erreserben kontura banatutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak

Atal honetako informazioa, baldin eta aitortutako zergaldian horretarako baldintzak bete badira (erakundearen dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak banatzea), bereizketa hau eginda eman behar da: batetik erakundea araubide berezian egon den ekitaldiak; bestetik araubide hori aplikatu ez zaien ekitaldiak.

Zergaldiko azken egunean egon diren bazkideen zerrenda, partaidetzarik handienekotik txikienera ordenatuta, identifikazio datuekin eta egun horretako partaidetza ehunekoarekin.

Atal honetan erakunde aitortzaileak bazkideen edo bazkidetasunaren berezko eskubide ekonomikoak dauzkaten pertsonen zerrenda eman behar du.

F/J zutabea: Pertsona fisikoa bada, F jarri behar da; pertsona juridikoa bada, J.

R/X zutabea: Bazkidea Espainiako lurraldeko egoiliarra bada, R jarri behar da; Espainiako lurraldeko egoiliarra ez bada, X.

Probintziaren kodea zutabea: Bazkidea Espainiako lurraldeko egoiliarra ez bada, 99 kodea jarri behar da.

Finantza gastu garbi egozgarriak zutabea: "partaidetzaren %" zutabearen adierazitako partaidetza ehunekoaren arabera egoz daitezkeen eta kendu ez diren finantza gastu garbien zenbatekoa adieraziko da.

Egotzitako zerga oinarria zutabea: Erakunde aitortzaileak zerrendako bakoitzari egotzitako zerga oinarria zehaztu behar du, positiboa zein negatiboa, "Partaid. %" laukian adierazitako partaidetza ehunekoaren arabera.

Partaidetza % zutabea: Zerrendan azaltzen den bakoitzaren partaidetza ehuneko zehaztu behar da, sozietatearen estatutuetan ezarritako proportzioaren edo, bestela, kapital sozialean daukan partaidetzaren arabera.

Ondare tresnatzat jo behar diren ekarpenak zutabea: bazkidearen ekarpenak ezaugarri bereziko ondare tresnatzat jo behar badira, (3647) laukia markatu behar da.

Egindako ekarpenak zutabea: bazkideak taldearen kapitalera egindako ekarpenak ezaugarri bereziko ondare tresnatzat jo behar badira, haien zenbatekoa adierazi behar da (3648) laukian.

5 - 13 BITARTEKO ORRIALDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

KONTABILITATEA

5 - 8 bitarteko orrialdeak: Balantzea.

Adierazten diren kontuen eta kontu taldeen saldoak eman behar dira, aktibokoenak zein ondare garbikoenak eta pasibokoenak, subjektu pasiboaren ekitaldi ekonomikoaren amaierako kontabilitate erregistroetan ageri diren bezala.

9. eta 10. orrialdeak: Galeren eta irabazien kontua.

Eragiketa jarraituen eta etendako eragiketen kontuen eta kontu taldeen saldoak eman behar dira, subjektu pasiboaren ekitaldi ekonomikoaren amaierako kontabilitate erregistroetan ageri diren bezala.

11 - 13 bitarteko orrialdeak: Aldaketen egoera ondare garbian.

Atal honetan, ondare garbiaren aldaketen egoeraren berri emateaz gainera, (501) – (525) bitarteko laukietan Akziodunen Batzar Nagusiak edo horren kideko erakundeak egindako emaitzen aplikazioari buruzko informazioa eman behar da, honi erantsitako eskemari jarraituz, bai banaketaren oinarriari dagokionez, bai banatutako kopuruaren osaerari dagokionez. Aplikazioen artean sartuko dira, hala balegokio, 37/2013 F Aren 51., 52. eta 53. artikuluetako emaitza aplikatzearen ondoriozko zuzenketengatik erreserbei egindako zuzkidurak. Galerak eduki dituzten erakundeek erreserbak banatzen badira bakarrik bete behar dute atal hau.

Eragiketen bolumena: gakoa (4600).

Laguntza programak eragiketen bolumena kalkulatu du, eta zergadunak eskuz alda dezake zenbateko hori.

14A ETA 14B ORRIALDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

LIKIDAZIOA (I) ONDARE SOZIJETATEAK IZAN EZIK KONTABILITATEKO EMAITZAREN ZUZENKETAK ETA KUOTA OSOAREN ZEHAZTAPENA

Orrialde hau ONDARE SOZIJETATE EZ DIREN erakundeek bete behar dute

Galera eta irabazien kontuaren emaitza

Programak galera eta irabazien kontuaren emaitza jarriko du 1000 laukian, ondoko kopurua, alegia:

- Aseguru erakundeak edo BGAEak: 40. orrialdeko 500 laukian ageri den kopurua.
- Talde inbertsioko erakundea: 46. orrialdeko 500 laukian ageri den kopurua.
- Kooperatibak, kreditu edo aseguru kooperatibak izan ezik: 54. orrialdeko 388 laukian ageri den kopurua.
- Gainerakoak: 10. orrialdeko 375 laukian ageri den kopurua.

Elkarrekiko bermeko sozietateek zuzenean adierazi dezakete kopurua lauki honetan, ondoren kontabilitatea atxikituz.

Gainera, ondoko zenbatekoa jarriko du 1001 edo 1002 laukian ("Sozietateen gaineko Zergaren zuzenketak, eragiketa jarraituak"):

- Aseguru erakundea: 40. orrialdeko 379 laukian ageri den kopurua.
- Talde inbertsioko erakundea: 46. orrialdeko 242 laukian ageri den kopurua.
- Kooperatibak, kreditu edo aseguru kooperatibak izan ezik: 54. orrialdeko 385 laukian ageri den kopurua.
- Gainerakoak: 10. orrialdeko 372 laukian ageri den kopurua.

Erakundeak etendako eragiketak egin baditu, subjektu pasiboak behar den kopurua jarri behar du 1003 edo 1004 laukian ("Sozietateen gaineko Zergaren zuzenketak, etendako eragiketak").

Sozietateen gaineko Zerga aplikatu baino lehen galera eta irabazien kontuaren emaitza zenbatekoa izan den jakiteko eragiketa hauek egin behar dira:

$1005 \text{ laukia} = 1000 \text{ laukia} + 1001 \text{ laukia} - 1002 \text{ laukia} + 1003 \text{ laukia} - 1004 \text{ laukia}$.

Galera eta irabazien kontuaren emaitzaren zuzenketak Sozietateen gaineko Zerga aplikatu baino lehen

"Galera eta irabazien kontuaren emaitzaren zuzenketak" ataleko gakoaren helburua hau da: Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez kalkulatzea, Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuz zuzenduta Sozietateen gaineko Zerga aplikatu aurretik galera eta irabazien kontuan izan den emaitza, eta hori guztia foru arau horretako 15. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik.

- Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauko 13. artikuluan ezarritako zerga kenkaririk ez duten gastuak eragindako gehikuntzei dakokienez, zergadunak (1032) laukia.betetzen badu, aipatutako laukiaren eskuinetara dagoen goitibeherako informazioa bete behar du.

Informazioa 17. orrialdera eramango da (ikus jarraibideak).

- Moneta balio-galeraren eta berrinbertsioaren ziozko salbuespenaren ondoriozko errenten zuzenketak eragindako gutxikuntzei dagokienez, subjektu pasiboak berariazko goitibeherako menuan jasotako informazioa sartu behar du.

Informazioa 21. orrialdera eramango da (ikusi jarraibideak).

Garrantzitsua

2012ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuez den bezainbatean, baldin eta balantzeak eguneratzeari buruzko ZPADaren 4. eta 5.1 artikuluen arabera eguneratu ahal direnetakoak badira (15/2012 ZPAD, abenduaren 28koa), monetaren balio galtzea dela-eta aplikatzekoa den zuzenketa aplikatzekotan, 2012ko ekitaldia amaitu ostean sortzen den monetaren balio galtzeagatik dagokiona baizik ez da aplikatuko.

Ondare gai horiez den bezainbatean, eguneratuak izan edo ez, eskuratze balioa eta 2013 arteko amortizazio pilatua adierazi beharko dira (1995) eta (1996) laukitxoetan, eta ondorengo amortizazioak hurrengo ekitaldiei dagozkien laukitxoetan.

Zenbait irizpide ezartzen diren abenduaren 28ko 15/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, balantzeen eguneratzea onartu zuena, aplikatzeko, Ogasun Zuzendaritzaren 1/2013 Jarraibidea, 5.3. atala: "Uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, bere 15.11 artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorritik, abenduaren 28ko 15/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera eguneratu daitezkeen ondare elementuen eskualdaketatik sortutako errenta positiboak zerga oinarrian sartzeari begira, bakar-bakarrik 2012ko ekitaldiaren amaiera datatik 11/13 aurrera gertatzen den monetaren balio galera kenduko da, zergadunak balantzeen eguneratzeaz baliatu nahiz ez baliatu.

Horrek guztiak ez du eragozten aparteko etekinen berrinbertsio osoaz nahiz partzialaz (uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, bere 22. artikuluan arautua) baliatzeko zergadunek daukaten aukera."

15/2012 ZPAD, 4. artikulua: Eguneratu daitezkeen elementuak..

"1. Ibilgetu materialeko elementuak eta higiezinetakoinbertsioak eguneratu ahal izango dira, Espainian nahiz atzerrian kokatuak. Establezimendu iraunkorra duten ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren ziozko zergadunen kasuan, eguneratu daitezkeen elementuhoriek establezimendu iraunkorrari atxikita egon behar dute.

2. Hauek ere eguneratu ahal izango dira:

a) Finantza errentamenduaren araubidean eskuratu diren ibilgetu materialaren eta higiezinetakoinbertsioen elementuak, Sozietateengaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 116. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen direnak.

Kasu horretan egunerapenak ondorioak izan ditzan, baldintza suntsiarazle gisa, erosteko aukera egikaritu beharko da.

b) Kontzesio erabakiei dagozkien ondare elementuak, enpresa kontzesiodunek aktibo ukiezintzat erregistraturikoak erregistraturikoak, enpresa horiek abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduan ezarritako kontabilitateirizpideak aplikatu behar badituzte. Agindu horretan, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen kontzesioak dituzten enpreseiegokitzeko arauak onartu dira.

3. Eguneratu daitezkeen elementu guztien eta dagozkien amortizazioen eguneratzea egin beharko da, higiezinaren kasuan izan ezik, higiezin bakoitza bereiz eguneratzea aukeratu ahal izango baita. Higiezinak eguneratzen direnean, lurzoruaren balioa eta eraikinaren balioa bereizi beharko dira.

4. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ziozko zerga dunen kasuan, eguneratu daitezkeen elementuek jarduera ekonomikoari atxikita egon beharko dute "

15/2012 ZPAD, 5.1. artikulua: "Balioa eguneratuko zaie elementu hauei: zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean jarri ondoren ixten den lehenengo balantzean ageri diren elementu eguneragarriak, (...) baldin eta ez badute zerga amortizazio osoa eginda.

Ondorio horietarako, egin behar ziren zerga amortizazioak hartuko dira, gutxienez ere."

- Irabaziak berrinbertitzearen salbuespena aplikatzeko baldintzak ez betetzeagatik kontabilitate emaitzan egin beharreko gehikuntzak honela sartuko dira: 22 B orrialdeko bigarren taulan sartzeko baliatzen den (1109) laukitxoaren ondoan dagoen goitibeherakoa baliatuz.
- Kontabilitateko Plan Orokorren lehenengo aplikazioagatik doikuntzak direla eta:

“KPOaren lehen aplikazioagatik doikuntzak” ataleko goitibeherako menuan azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorren edo azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onartutako Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitateko Plan Orokorren eta mikroenpresentzako kontabilitateko irizpide zehatzen lehenengo aplikazioaren ondorioz gastu edo sarreratzat, hurrenez hurren, hartzen diren erreserba partidetarako karguak eta ordainketak zehaztu behar dira.

Zergadunak 2008an 60/2002 FDko laugarren xedapen iragankorreko laugarren puntuan xedatutakoa, edo bosgarren puntuan xedatutakoa, edo bietan xedatutakoa hautatu bazuen, informazio hau ez du bete behar.

Programak 17. orrialdean jarriko du informazioa (ikusi orrialde horri buruzko jarraibideak).

- “Beste zuzenketa batzuk” atala:
“Beste zuzenketa batzuk” atalean (1076 eta 1077) galera eta irabazien kontuaren emaitzaren zuzenketa beste zenbateko guztiak jaso behar dira (SZren zuzenketa bazter utzita), hain zuzen ere aurreko zerrendako zuzenketei dagozkien gakoetan sartu ezin direnak. Gako horietan zenbatekorik jarritz gero, horretarako dagoen laukian zehaztu behar dira zenbatekoak.
- Kontabilitateko emaitzaren zuzenketa, xehekatuta (Sozietateen gaineko Zergaren zuzenketa bazter utzita):

Zerga zuzenketa kontzeptu bakoitzeko ondoko datuak zehaztu behar dira: ekitaldiko zuzenketa zenbatekoa eta geratzen den saldoa, hau da, hurrengo ekitaldietako zerga oinarrien integrazioan gehikuntza edo gutxikuntza gisa zenbatuko dena.

Konpentsazioak eta erreserbak egin baino lehenagoko zerga oinarria

(1525) laukitxoan, programak kalkulatu du 37/2013 FAren 32.4 artikuluan mikroenpresentzako zehaztutako zerga konpentsazioa eta 37/2013 FAren 51., 52. eta 53. artikuluetan aipatzen diren emaitza aplikatzearen arloko zuzenketa.

Kalkulua egiteko, programak galera-irabazien kontuaren emaitzari aplikatu dizkio, Sozietateen gaineko Zerga aplikatu aurreko emaitzari, alegia, 14. A orrialdean adierazitako kontabilitate-emaitzaren zuzenketa, eragiketa hau eginez:

$$(1525) = (1005) + (1078) - (1079)$$

37/2013 FAko 48. artikuluan, 22. xedapen gehigarrian eta VI. tituluko III. kapituluaren arabera egotzen diren errenta positiboak

Entitateak honako errenta hauek ezarri behar ditu (1547) laukian: 48. artikuluan (Entitate ez-egoiliarrek lortutako errenta positibo jakin batzuk zerga oinarrian sartzea), 22. xedapen iragankorrean (sozietate zibilak) eta VI. tituluko III. kapituluaren (ABEEak eta EITak) xedatzen denarekin bat etorritik egotzi beharreko errentak; errenta hauek ez dira zenbatu behar mikroenpresen zerga konpentsazioa kalkulatzeko erabiltzen den zerga oinarri positiboa zehazteko.

Zerga konpentsazioa, mikroenpresak (37/2013 FAren 32.4 art.)

Enpresaren neurria dela-eta berezkoak diren zailtasunengatik zerga konpentsazioaz den bezainbatean, mikroenpresa izateko 13.1 artikuluan zerrendatzen diren betekizunak betetzen dituzten enpresek, beraz, zerga oinarritik kendu ahal izango dute konpentsazio hau aplikatu aurreko zerga oinarri positiboaren ehuneko 15.

Horretarako, 2. orrialdeko (0075) laukitxoan markatuko da, eta (1525) – (1547) kenketaren emaitza positiboa bada, programak horren % 15 ezarriko du (1526) laukian.

Emaitzaren aplikazioaren arloko zuzenketa (37/2013 FAren 51., 52. eta 53. artikulua)

(1527) laukitxotik (1530) laukitxora bitartean, emaitza aplikatzearen arloko zuzenketa direla-eta enpresak zuzkitutako erreserbei dagozkien murrizketak eta integrazioak sartuko dira.

Zuzenketa horiek ezin izango dituzte aplikatu ez SZFAren 56.1 artikuluan ezarritakoaren bestelako karga tasa (% 26 eta % 22) aplikagarri dituzten erakundeek ez sozietateen gaineko zergaren ordainketarako

arabide berezia aplikatzen dutenek (salbu eta zerga baterakuntzako arabidepekoek). Era berean, ezin izango dute aplikatu 32.4 artikuluan jasotako zerga konpentsazioa baliatzea erabaki duten mikroenpresek. (1531), (1532) eta (1533) laukitxoetan adieraziko dira, emaitza aplikatzearen arloko zuzenketa horiek aplikatzeko betekizunak ez betetzeagatik egin behar diren integrazioak.

Zuzenketa horiei dagozkien datuak hemen adierazten dira: (1527), (1529), (1530), (1531), (1532) eta (1533) laukitxoan ondoan dauden goitibeherakoetan eta 22C orrian irekiko diren tauletan (ikus 22C orrialdeko jarraibideak).

Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioa (37/2013 FA, 55. art.)

Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboak aurreko zerga oinarria (1504 laukia) (kooperatiba sozietateentzat aurreko zerga oinarri orokorra, (2801) laukia) positiboa izatekotan bakarrik konpentsatuko dira, eta honen zenbatekora iritsi arte gehienez. 24/1996 Foru Arauko 49. artikuluan enpresa txikitzat hartzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten subjeto pasiboek aplika dezaketen konpentsazioa gehienez ere aurreko zerga oinarri positiboaren %70 izango da.

Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboak badaude eta ekitaldi honetan konpentsatzen badira, edo konpentsatzeko gelditzen badira, galeren konpentsazioko taula egokia bete behar da (14. orrialdeko 1505 laukiko goitibeherakoa, 2802 laukiko goitibeherakoa kooperatiba sozietateentzat).

Taula behar bezala betetzeko kasu egin behar zaie jarraibide hauei:

- a) Ekitaldi bakoitzeko zerga oinarria adierazi behar da (konpentsatzeko kopuruak, oraingo ekitaldian konpentsatzen direnak edo hurrengo ekitaldietarako konpentsatzeko geratzen direnak, badaude bakarrik).
- b) Aurreko ekitaldietan konpentsatutako kopuruak adierazi behar dira, egonez gero.
- c) Oraingo ekitaldian konpentsatutako kopurua adierazi behar da, egonez gero.
- d) Programak hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko dagoen kopurua kalkulatu du, egonez gero, kontuan edukita kopuru hori ekitaldiaren hasieran konpentsatzeko zeuden kopuruen eta hartan konpentsatutako kopuruaren arteko diferentzia izango dela.
- e) Ekitaldian konpentsatutako kopurua (23. orrialdeko 6079 laukia) 14. B orrialdeko 1505 gakoan (2802 gakoan kooperatibentzat) jasotakoa izango da.
- f) 23. orrialdeko 6080 laukian hurrengo ekitaldietarako konpentsatzeko utzitako kopuruen batura jarri behar da.

Goitibeherako honetan sartzen den informazioa 23. orrialdera eramango du programak.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako, 37/2013 Foru Arauaren 55. artikulua honako muga hau ezartzen du: konpentsazioaren aurreko zerga oinarri positiboaren % 50. Muga % 70ekoa izango da mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat.

Likidazio oinarria

Likidazio oinarria positiboa edo hutsa (0) izan daiteke.

Karga tasa

Laguntza programak aplikatu beharreko karga tasa (1511 laukia) ezarriko du erakunde aitortzailearen zerga arabidea kontuan hartuta (zerga arabidea adierazteko "X" batez markatu behar da 2. orrialdeko lauki egokia).

Karga tasa hauetan xedatutakoaren arabera izango da:

- Oro har, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 FAko 56. artikuluan.
- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak (establezimendu iraunkorra), 21/2014 FAko 19. artikuluan.
- Kooperatiba sozietateak, 16/1997 FAko 18. Ter eta 26.2. artikuluetan.
- Ondare sozietateak, 37/2013 FAko 56.2. artikuluan.

Kuota osoa

Zergaren likidazio oinarri positiboari karga tasa aplikatzearen emaitza izango da.

Erakunde aitortzailea ekonomia intereseko Europako taldea bada, ez du ezer jarri behar lauki honetan.

Programak likidazioaren 16. orrialdera eramango du emaitza.

Kooperatiba sozietateen gaineko kuota osoaren kalkulua

(16/1997 Foru Araua, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko)

Kooperatibek sozietateen gaineko zergaren kalkulua egiteko, aurreko zerga oinarria (2800 laukia) bi zatitan beriztuko dute: aurreko zerga oinarri orokorra (2801 laukia) eta zerga oinarri berezia (2806 laukia).

Kooperatibak honako errenta hauek ezarri behar ditu (2810) laukian: 48. artikuluan (Entitate ez-egoiliarrek lortutako errenta positibo jakin batzuk zerga oinarrian sartzea), 22. xedapen iragankorrean (sozietate zibilak) eta VI. tituluko III. kapituluan (ABEEak eta EITak) xedatzen denarekin bat etorritik egotzi beharreko errentak; errenta hauek ez dira zenbatu behar mikroenpresen zerga konpentsazioa kalkulatzeko erabiltzen den zerga oinarri positibo zehazteko.

Mikroenpresa izateko 37/2013 FAren 13.1 artikuluan zerrendatzen diren betekizunak betetzen dituzten kooperatibek zerga oinarritik kendu ahal izango dute konpentsazio hau aplikatu aurreko zerga oinarri orokorraren ehuneko 15. Horretarako, 2. orrialdeko (0075) laukitxoan markatuko da, eta (2801) – (2810) kenketaren emaitza positibo bada, programak horren % 15 ezarriko du (2809) laukian. Kooperatiba babestuentzako 16/1997 FAren 26.2 artikuluan edo gainerakoentzako 37/2013 FAren 56. artikuluan ezarritako tasekin zergapetuko da zerga oinarri orokorra.

Baldin erakunde aitortzailea sozietate kooperatibo bihurtu bada, (1531), (1532) eta (1533) laukietan erreferentzia egiten zaien 51., 52. eta 53. artikuluetan araututako erreserba berezietan dagozkien ez betetzeengatik integrazioak, bai eta (1528) laukian aipatutako 52. artikuluko erreserba bereziaren integrazioa ere, integratu beharra dakarten kasuetan baino ez dira bete behar.

Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboak ekitaldi honetako aurreko zerga oinarri orokorra konpentsatuko dira, zerga oinarri orokorra (2803 laukia) kalkulatzeko.

Zerga oinarri orokorrari karga tasa ezarriko zaio, 13/2007 Fako 9. xedapen gehigarrian ezarritako tasaz aplikatuz.

Zerga oinarri berezia ezin izango da inola ere murriztu eta horri dagokion kuotaren gainean ezin da inolako hobaririk ez kenkaririk aplikatu. Zerga oinarri bereziari % 19ko karga tasa ezarriko zaio.

Kuota osoa kuota osoa orokorra gehi kuota osoa berezia izango da. Programak likidazioaren 16. orrialdera eramango du emaitza.

Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen kuota osoaren kalkulua

37/2013 FAren 56.5 artikuluan arabera, ehuneko 0 izango da Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetarako buruzko Legearen 24.1 artikuluan ezarritako prestazioetako bat (5/2012 Legea, otsailaren 23koa) ematen duten borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen gaineko tasa. % 0ko karga tasa prestazio horiei baino ez zaie aplikatuko, gainerakoei % 20ekoa aplikatuko zaie.

Ondorioz, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek eragiketa hau egingo dute: 5/2012 Legearen 24. artikuluko prestazioei dagokien zerga oinarria [(1534) laukitxoan jasoko da eta % 0ko tasarekin zergapetuko] zati gainerako prestazioei dagokien zerga oinarria [(1536) laukitxoan jasoko da, eta % 20eko tasarekin zergapetuko].

Oinarri bi horiei dagokien kuoten batura izango da kuota osoa. Likidazioaren 16. orrialdera eramango du programak lortutako emaitza.

15. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

LIKIDAZIOA (I)

ONDARE SOZIETATEAK ZERGA OINARRIAREN ETA KUOTA OSOAREN KALKULUA

Orrialde hau 37/2013 Fako 141. artikuluan xedatutakoaren arabera ONDARE SOZIETATE diren erakundeek bakarrik bete behar dute.

Nola zehaztu zerga oinarria

Ondare sozietateen zerga oinarria zehazteko ez da aplikatuko inolako gastu kengarririk, nahiz eta galera eta irabazien kontuan kontabilizatuta egon; salbuespena: kapital higiezinaren aurrezkiaren zerga oinarriko etekinak, etxebizitzaren ondoriozkoa (PFEZi buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, 63. artikuluko a eta b idatz zatiak).

Zerga oinarria, beraz, erakundearen sarrera osoen zenbatekoa izango da; ezin zaio aplikatu 37/2013 Foru Arauko IV. tituluaren xedatutakoa (salbuespena: titulu honetako III., IV. eta VI. kapituluetan xedatutakoa aplikatuko zaio).

Etxebizitzaren ondoriozko kapital higiezinaren etekinak (PFEZi buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, 63.a artikulua)

Gastu kengarriak eta hobariak (PFEZi buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, 32.1. artikulua).

Kapital higiezinaren etekinak lortu badira etxebizitzaren bitartez, % 20ko hobaria aplikatuko zaie higiezin bakoitzagatik lortutako etekin osoei.

Halaber, etekinen iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen korrituak eta finantzaketako gainerako gastuak baizik ezin kendu izango dira.

Ondasun higiezin bakoitzean, hobariaren eta gastu kengarrien baturak ezin du sortu etekin garbi negatiboa.

Atal honetan Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluaaren arabera etxebizitza errentamendutzat hartzen direnen ondoriozko etekinak soilik sartzen dira.

Beste ondasun higiezin batzuk lagata edo haien gaineko erabilera eta gozamen eskubideak eratuta lortutako etekinak.

Gastu kengarriak eta hobariak (SZi buruzko abenduaren 37/2013 Foru Araua, 32.2. artikulua).

Erakundearen sarreren artean baldin badaude beste ondasun higiezin batzuk lagata edo haien gaineko erabilera eta gozamen eskubideak eratuta lortutako etekinak, kengarritzat jo ahal izango dira higiezin bakoitzetik ateratako sarrera osoen ehuneko 30.

Halaber, etekinen iturri diren ondasunak edo haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen korrituak eta finantzaketako gainerako gastuak baizik ezin kendu izango dira.

Ondasun higiezin bakoitzean, hobariaren eta gastu kengarrien baturak ezin du sortu etekin garbi negatiboa.

Kapital higikorren etekinak (PFEZi buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua, 63.b artikulua)

Gastu kengarriak (37/2013 Foru Araua, 32.2. artikulua)

Baldin eta erakundearen diru sarreretako batzuk Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 34. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak badira, ondare sozietateek foru arau horretako 9. artikuluko 24. zenbakian xedatutakoa aplikatu ahal izango dute errenta horiei dagokienean.

33/2013 FA, 9.24. art.: 33/2013 Foru Arauko 34. artikuluko a) eta b) letretan aipatutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak salbuetsita daude, muga honekin: 1.500 euro urtean gehienez.

Aurrezkiaren zerga oinarriko etekinak, guztira

-Aurrezkiaren zerga oinarriaren etekinen saldo positiboa

$(8000)+(8025)+(8026)+(8027)-(8028)+(8051)$ eragiketaren emaitza positiboa bada, programak 8035 laukian jarriko du.

Aldiz, emaitza negatiboa bada, 23. orrialdeko 8124 eta 8126 laukietan jarriko du (lauki hauek 15. orrialdeko 8036 laukiko goitibeherakoan agertzen dira).

-Aurrezkiaren etekinen saldo negatiboaren konpentsazioa, 2014ko, 2015eko, 2016ko eta 2017ko ekitaldiak.

Zergaldi bateko etxebizitzaren ondoriozko kapital higiezinaren etekinak eta kapital higikorren etekinak beraien artean soilik integratzearen eta konpentsatzearen emaitza saldo negatiboa bada, hurrengo lau urteetan sortzen diren mota bereko etekinen saldo positiboarekin soilik konpentsatu ahal izango da (PFEZi buruzko 33/2013 FA, 66. artikulua).

Aurreko idatz zatian ezarritako konpentsazioek gehieneko muga edukiko dute ekitaldi bakoitzean, eta ezin aplikatu izango dira epealdi horretatik kanpo ondoko ekitaldietako errenta negatiboak metatuta.

Programak 23. orrialdeko 8101, 8107, 8113 eta 8122 laukietako zenbatekoa (8036 laukiko goitibeherakoa) 15. orrialdeko 8036 laukira eramango du.

Aurrezkiaren zerga oinarriko ondare irabaziak eta galerak:

- Aurrezkiaren zerga oinarriko ondare irabazien eta galeren saldo positiboa

Zenbatekoa positiboa izanez gero, programak (8038) laukian jarriko du. $(8038) = (8052)-(8053)+(8054)$.

Aldiz, saldoa negatiboa bada, 8125 eta 8127 laukietan jarri behar da (lauki hauek 15. orrialdeko 8039 laukiko goitibeherakoan agertzen dira). Programak 23. orrialdera eramango du informazioa.

- Aurrezkiaren zerga oinarriko ondare irabazien eta galeren saldo negatiboaren konpentsazioa, 2014ko, 2015eko, 2016ko eta 2017ko ekitaldiak.

Zergaldi bateko aurrezkiaren zerga oinarriko ondare irabaziak eta galerak beraien artean soilik integratzearen eta konpentsatzearen emaitza saldo negatiboa bada, hurrengo lau urteetan sortzen diren mota bereko irabazi eta galeren saldo positiboarekin soilik konpentsatu ahal izango da (PFEZi buruzko 33/2013 FA, 66. artikulua).

Aurreko idatz zatian ezarritako konpentsazioek gehieneko muga edukiko dute ekitaldi bakoitzean, eta ezin aplikatu izango dira epealdi horretatik kanpo ondoko ekitaldietako errenta negatiboak metatuta.

Programak 23. orrialdeko 8104, 8110, 8116 eta 8123 laukietako zenbatekoa (8039 laukiko goitibeherakoa) 15. orrialdeko 8039 laukira eramango du.

16. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

LIKIDAZIOA (II) SARTU / ITZULI BEHARREKO KUOTAREN ZEHAZTAPENA

Ondare sozietateei ez zaie aplikatuko 37/2013 Foru Arauaren 60. artikulua 4. apartatua dioena, ez eta arau horrek 61. artikulutik 67. artikulura dioena ere.

Kuotaren doikuntza (1513 laukia)

37/2013 FA, 117.3. art.: zergaldia erakundearen forma juridikoaren eraldaketa burutzen denean amaituko da; horrek berekin ekarriko du haren gaineko karga tasa aldatzea edo zerga araubide berezia aplikatzea.

Eraldaketa gertatzen denean dauden ondare elementuak hura amaitu ondoren eskualdatuta lortutako errenta elementuaren edukitza aldi osoan modu linealean sortutzat hartuko da, kontrako frogarik egon ezean. Eraldaketa gertatu arte sortutako errenta zatia honela kargatuko da: erakundeak lehengo forma juridikoarekin jarraituz gero izango lituzkeen karga tasa eta zerga araubidea aplikatuko zaizkio.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa kasu honetan ere aplikatuko da: erakundeak, bere forma juridikoa eraldatu gabe, eskualdatu den elementua eduki duen aldiaren zerga honen araubide bat baino gehiago aplikatu badu.

Sozietateen gaineko zergaren kargapeko sozietate zibilak (lurralde erkideko araudia): zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria (37/2013 FA, 22. xedapen gehigarria)

22. xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko zergaren kargapeko sozietate zibilak:

Sozietate zibil bateko bazkideei ALHko araudia aplikatu behar bazaie eta sozietate zibilari lurralde erkideko araudia (hots, sozietateen gaineko zergaren kargapean badago), bazkideek honela zuzenduko dute zergapetze bikoitza:

- Bazkide bakoitzak bere zerga oinarrian sartu behar du sozietate zibilak ekitaldi soziala amaitzen den egunaren ondoren amaitzen den zergaldian lortutako errenta positiboaren zati bat, bere partaidetzari dagokion zatia, hain zuzen. Errenta 37/2013 FAn ezartzen denaren arabera kalkulatu da.
- Kargengatik ordaindutako zenbatekoen zati bat kendu ahal izango dute kuota osotik, zerga oinarrian egotzitako errentaren dagokion zatia, hain zuzen. Kenkaria ezin da izan zerga hau dela eta zerga oinarrian sartutako errentagatik ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.
- Ez dira sartu behar zerga oinarrian sozietate zibilak emandako dibidenduak, ez eta haren partaidetza eskualdatuta lortutako errentak ere, baldin eta errenta horiek zerga oinarrian integratuta badaude.
- Zergaren autolikidazioarekin batera datu batzuk aurkeztu behar dituzte sozietate zibila identifikatzeko.

Ekitaldian sortutako kenkariaren datuak (1548) laukiko goitibeherakoan sartu behar dira.

Programak lauki horretan ezarriko du likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

Goitibeherakoan ezarritako informazioa 19. orrialdeko (2380) laukian agertuko da.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kentzen ez diren zenbatekoak hurrengo zergaldietako kuota osoetatik kendu ezin izango dira.

Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria (37/2013 FA, 60. Art.)

Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik kenkaria (37/2013 FA, 60.1. art.)

Zergadunaren zerga oinarrian atzerrian lortu eta kargatutako errentak sartzen badira, kuota osotik kendu behar da zerga hau bezalako karga edo antzeko karga baten zioz atzerrian ordaindutako zenbatekoa.

37/2013 FAko 34. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren kasuetan, aurreko paragrafoaren xedatutakoaren ondorioetarako zenbateko hau soilik hartuko da kontuan: atzerrian zerga hau bezalako edo antzeko karga baten zioz benetan ordaindutako kopurutik 37/2013 FAko 33. artikuluko 1. idatz zatiko b) edo c) letran ezarritakoaren arabera zerga oinarrian integratu behar ez diren errentei dagokion zatia, hain zuzen ere partaidetzaren eskualdaketari esker lortutako guztirako errenten proportziozkoa.

Salbuespena, hobaria edo beste zerga onuraren bat dela eta ordaindu ez diren zergak ez dira kengarriak. Halaber, honetako 39. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz zerga oinarrian sartu ez diren errenten gaineko zergak ere ez dira kengarriak.

Zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena aplikatzen bada, kenkaria ezin da izan hitzarmenaren arabera ordaindu beharreko zerga karga baino gehiago.

Atzerrian ordaindutako zergaren zenbatekoa errentan sartuko da aurreko idatz zatiko ondorioetarako eta zerga oinarriari gehituko zaio, guztiz kendu ezin bada ere.

Zergadunak zergaldian zehar atzerrian errenta bat baino gehiago lortu badu, kenkaria herri berean eskuratutakoak batuz egingo da, salbu establezimendu iraunkorrekoak, azken hauetako bakoitzerako aparte konputatuko baitira.

Kenkaria ezin da izan zerga hau dela eta zerga oinarrian sartutako errentagatik ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

Halaber, Atzerrian ordaindutako zergak kenduz gero, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan errenta Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren arautegiaren menpean dagoen erakunde batek ordainduz gero, hura dela eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

(1546) laukitxoko goitibeherakoan sartuko dira ekitaldi honetan sortutako kenkariei dagozkien datuak, (2370) laukitxoan hain zuzen ere.

(1546) laukitxora eramango du programak likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

19. eta 20.A orrialdera eramango da goitibeherako horretan adierazitako informazioa.

Ekonomiko zergapetze bikoitzagatik kenkaria (37/2013 FA, 60.4. art.)

Zerga oinarrian erakunde batek estatuan edo atzerrian ordaindutako dibidenduak edo mozkin partaidetzak sartuz gero, erakunde horrek dibidenduen iturri diren mozkinengatik benetan ordaindutako zerga karga kenduko da, hain zuzen ere dibidenduei dagokien zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori zergadunaren zerga oinarrian sartuta badago.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzeko ezinbestekoa da 37/2013 FAko 33. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezarritakoa betetzea; kasu horretan artikuluko bereko 3. eta 5. idatz zatietan xedatutakoa aplikatuko da.

Hori dela eta, benetan ordaindutako zergatzat hartuko da dibidendua banatzen duen sozietatean partaidetza duten erakundeek eta aldi berean azken hauek zuzeneko partaidetza duten erakundeek, eta horrela hurrenez hurren, ordaindutako zerga, dibidenduak ordaintzeko erabili diren mozkinen egotzitako zatian, baldin eta partaidetza horiek ehuneko 5 baino txikiagoak ez badira (edo ehuneko 3 baino txikiagoak, sozietateak antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badu) eta 37/2013 FAko 33. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezarritako beharkizuna betetzen badute partaidetzaren edukitza aldiari dagokionez.

Idatz zati honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ondare sozietateei.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

(1546) laukitxoko goitibeherakoan sartuko dira ekitaldi honetan sortutako kenkariei dagozkien datuak, (2371) laukitxoan.

(1546) laukitxora eramango du programak likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

19. eta 20.A orrialdera eramango da goitibeherako horretan adierazitako informazioa.

Dibidenduak eta mozkin partaidetzei, nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena ez dagoenean, dagokie kenkaria (37/2013 FA, 60.5. art.)

Zergadunaren errenten artean egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duen erakunde baten dibidenduak edo mozkin partaidetzak badaude, hain zuzen ere egoitza Espainiako Erresumak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena (informazioa trukatzeko klausularekin) sinatuta ez daukan herrialde bateko erakunde batenak, zergadunak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria aplikatzea hauta dezake (kenkari hau ezin da bateratu artikuluko honetako aurreko idatz zatietako kenkariarekin): dibidenduei edo mozkin partaidetzei dagokien zerga oinarriaren ehuneko 18.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, dibidenduei edo mozkin partaidetzei dagokien zerga oinarria honela kalkulatu behar da: haien zenbateko osotik partaidetzaren inguruko gastuak kendu behar dira.

Idatz zati honetan xedatutakoa ez da aplikatuko kasu hauetan: dibidenduei edo mozkin partaidetzei foru arau honetako 33. Artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal bazaie; dibidenduak edo mozkin partaidetzak foru arau honetako 33. artikuluko 1. idatz zatiko c) letrako azken paragrafoan xedatutakoari dagokionez konputatzen ez den jarduera batean sortu badira; dibidenduak edo mozkin partaidetzak foru arau honetako 48. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran aipatzen diren jardueretako batek sortu baditu.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak ezin dira kendu kuotatik hurrengo ekietaldetan.

(1545) laukitxoko goitibeherakoan sartuko dira ekitaldi honetan sortutako kenkariari dagozkien datuak, (2372) laukitxoan hain zuzen ere.

(1545) laukitxora eramango du programak likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

19. eta 20.A orrialdera eramango da goitibeherako horretan adierazitako informazioa.

48. artikuluan ezarritakoaren arabera egoiliar ez diren erakundeek lortutako errenta positibo batzuk sartu behar dituzten zergadunei dagokie kenkaria (37/2013 FA, 60.6 art.)

Zerga oinarrian 37/2013 FAko 48. artikuluan ezarritakoaren arabera egoiliar ez diren erakundeek lortutako errenta positibo batzuk sartu behar dituzten zergadunek ondokoak kendu ahal izango dituzte kuota osotik:

a) Zerga hau bezalako edo antzeko zergak edo kargak, benetan ordainduak, hain zuzen ere zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia. Benetan ordaindutzat joko dira egoiliar ez den erakundeak eta hark partaidetza daukan erakundeek ordaindutakoak, baldin partaidetza ehunekoa foru arau honetako 33. artikuluko 1. idatz zatian aipatutakora heltzen bada.

b) Atzerrian dibidenduak edo mozkin partaidetzak banatzeagatik benetan ordaindutako zerga edo karga, bai zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten arabera bai herri edo lurralde hartako legeriaren arabera, hain zuzen ere lehendik zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.

Erakunde ez-egoiliarraren kapitaleko partaidetza zeharkakoa bada, beste erakunde ez-egoiliar baten edo batzuen bitartez, azken horrek edo horiek benetan ordaindutako zerga hau bezalako edo antzeko zerga edo karga kenduko da, hain zuzen ere lehendik zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.

Kenkari hauek errenta positiboa zerga oinarrian sartu zen zergaldian ez ezik zergak beste zergaldi batzuetan ordaindu direnean ere aplikatuko dira.

Zerga paradisutzat jotzen diren herrialde eta lurraldeetan ordaindutako zergak ez dute kenkaririk sortuko.

(1546) laukitxoko goitibeherakoan sartuko dira ekitaldi honetan sortutako kenkariari dagozkien datuak, (2370) laukitxoan, 60.1 artikuluko kenkariarekin batera.

(1546) laukitxora eramango du programak likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

19. eta 20.A orrialdera eramango da goitibeherako horretan adierazitako informazioa.

Kenkaria behin-behineko neurriak lehengoratzegatik (2/2018 Foru Arauaren bigarren xedapen iragankorra)

Kenkaria kuotan (% 2koa edo % 1koa), 15/2012 Zerga Premiazko Araugintza Dekretuak xedatutakoaren arabera balantzeak eguneratzetik sortutako balioaren gehikuntza garbiari dagokion amortizazioagatik zerga oinarrian sartzan diren kopuruetan.

Kuota likidoa

Honela kalkulatzen da: doitutako kuota osotik zergapetze bikoitzagatikoa kenkariak kendu behar dira. Eragiketa horren emaitzako kuota likidoa positiboa edo zero (0) izan behar da (ezin da izan negatiboa).

Bereziki babestutako kooperatiben kenkaria (37/2013 F Aren hamaseigarren XGaren 5. paragrafoa)

Bereziki babestutako kooperatiba bada, % 50 kenduko zaio kuota likidoari. Automatikoki kalkulatu du programak.

Lehentasunezko ustiategi elkartuaren izaerako nekazaritza kooperatiba bada, kenkaria % 75 izango da eta (9964) laukia bete beharko da.

Baldin bigarren graduko kooperatiba bada eta eskubidea badu 16/1997 Foru Arauaren 28.3. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko, (1543) laukian sartuko du kendu beharreko kuota likidoaren ehuneko, bereziki babestutako kooperatibekin egindako eragiketetatik datozen emaitzen arabera.

Oraingo ekitaldiko kuotaren gaineko % 35eko baterako muga duten kenkariak

Orrialde honetako (1522) laukiko goitibeherako menuko taulak bete behar dira.

Lehen taula "Korronteak ez diren aktibo berrietan egindako inbertsioen ziozko kenkaria (37/2013 FA, 61. art.)" kontzeptuari dagokio; nahitaez bete behar da horren ziozko kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu bada.

Kontuan eduki behar dira ondokoak:

Inbertsioen ezaugarriak:

Oro har: ibilgetu materialeko edo ekonomia ustiategi bati atxikitako higiezin inbertsioetako zati diren aktibo ez-korronte berriak. Lurzoruak salbuetsita daude.

Bai eta ere:

- Leasing bidez erositako aktiboak.
- Aplikazio informatikoak.
- Zaharberitutako industria pabilioien edo zaharberritu beharreko pabilioien erosketa.
- Norberaren industria pabilioiak zaharberritzea.
- Kontzesiodun enpresek azpiegituretan egindako eta ukiezin eta finantza aktibo gisa kontabilizatutako inbertsioak.

Inbertsioen betekizunak:

- Berria: beste pertsona batek erabili gabea eta, funtzionatzen hasi aurretik, beste pertsona baten ibilgetura ez gehitua.
- Ekonomia ustiategi bati atxikia.
- Aktibo ez korrontean kontabilizatzea.
- Gutxieneko amortizazio aldia > 5 urte (informatika ekipoak izan ezik).
- Zenbait garraibideren gaineko zerga berezia ez ordaintzea (renting-a izan ezik).
- Zerga pizgarria izan dezaketen inbertsioen zenbatekoak honako kopuru hauek baino handiagoa izan behar du:

- a) datu hauen baturaren % 10 baino handiagoa: aktibo finkoko aurreko kontabilitateko balio garbiak (aurreko urteko zergaldiaren azken eguna), baturatik kenduta amortizazioak eta narriaduraren ondoriozko galerak (ibilgetu materiala + higiezin etako inbertsioak + aplikazio informatikoak + azpiegituretako inbertsioak);
- b) edo 5 milioi euro baino handiagoa.

Azken betekizuna ezin betetzea dakarren desfektaziorik gertatzen bada, kenkari osoa galtzen da, eta horrek berekin ekarriko du ekitaldian kuota + interesak erregularizatu beharra.

Kenkariaren zenbatekoa:

- Oro har, % 10

- Kasu hauetan % 5eko kenkaria izango dute:

- Zergadunak bere aktibo ez korronteko gaitan egiten dituen eta kontabilitatean hobekuntza moduan agertzen diren inbertsioek. Kasu horretan, zergadunak administrazioa lotesteko prozedura abiarazi ahal izango du Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zerga administrazioak % 10eko kenkari tasa aplikatzeko baimena eman dezan, inbertsioa dela-eta aktiboan gertatzen den egiturazko aldaketari eta aldaketa funtzionalari esker aktiboa beste xede batzuetarako erabili ahal denean.

Errentamendu operatiboetan, errentan emandako edo lagatako elementuan errentatzaileak egiten dituen inbertsioek.

Kontabilitateko balioa zehazteko, inbertsioa egin den ekitaldiaren aurreko zergaldiko azken eguneko balantzea aplikatuko da, egun horretan inbertsioaren xede den aktibo finkoari dagokiona zenbatu gabe.

Kontzeptuak:

- (a) Aurreko ekitaldiko kontabilitate balio gordina: Kontabilitate Plan Orokorreko kontuen aurreko ekitaldiko azken eguneko kontabilitate balio gordina jarriko da, finantza errentamenduaren araubidean eskuratutako eta plan horretako 217 kontuan kontabilizatutako ondasunak erosteko aukeraz baliatzerakoan kontabilizatu beharko diren kontuan sartuta.

- (b) Inbertsioaren zenbatekoa: finantza errentamenduaren araubidean egindako inbertsioak bidezko laukietan sartu behar dira, erosteko aukera gauzatzekoan kontabilizatzen diren Kontabilitate Plan Orokorreko kontuaren arabera.

- (d) Kenkariaren oinarria $\{(b) - [(c) \times 1 - (tg/100)]\}$

Kenkariaren oinarrian itundutako kontraprestazio osoa sartu behar da, baina ondokoak ez: korrituak, zeharkako zergak eta errekaruak: hauek ez dira konputatu behar, aktiboen balioespenean zer diren kontuan eduki gabe.

Kenkariaren oinarria, horrela kalkulaturik, ezin izango da merkatuan egoera normalean eta pertsona independenteen artean adostuko zen prezioa baino gehiago izan.

Inbertsioak ondasun higiezinetan egin badira, lurraren balioa kenkariaren oinarritik kanpo utzi behar da.

Halaber, bidezkoa denean, kenkariaren oinarritik zenbateko hau kendu behar da: aurreko III. kapituluko kenkariak dagozkien inbertsioetarako edo jardueren sustapenerako jasotako kapital dirulaguntzei eta ustiapenerako dirulaguntzei % 100en eta erakundeari aplikatu beharreko karga tasaren arteko diferentzia aplikatzearen emaitza.

- Guztira 3151, 3152 eta 3156: zutabeetako kopuruen batura.

- Aurreko ekitaldiko amortizazio metatua (3153): aurreko ekitaldiko azken egunean adierazitako kontuetan metatutako amortizazioaren batura.

Balio narriadurarengatik galera (3160): adierazitako kontuen balio narriaduraren batura, aurreko ekitaldiko azken egunean.

- Aurreko ekitaldiko kontabilitate balio garbia: $(3154) = (3151) - (3153) - (3160)$

$(3155) = (3152) / (3154) \times 100$. Automatikoki kalkulatzen du programak.

- -67.4 artikuluan ezarritakoa (3158): artikulua horretan ezarritakoari helduz gero, Administrazioari noiz jakinarazi zaion zehaztu behar da (3159).

67.4. art.: oro har, korrontek ez diren aktiboko elementuetan egindako inbertsioak, artikulua honetan jasotzen direnak, eta Foru Arauan ezarritako gainerakoak abian jarritakoan egintzat joko dira.

Hala ere, iraupen luzeko inbertsio proiektuetan, hau da, ondasunak agintzen direnetik eskuratu arte hamabi hilabete baino gehiago pasatzen direnean, subjektu pasiboak inbertsioa ordainketak egin ahala

egintzat jo ahal izango du, inbertsioaren zenbatekoa ordainketena dela, eta ondasunen hornitzailearekin kontratua sinatu den egunean indarrean egon den kenkari araubidea aplikatuko da.

Hori hautatuz gero, irizpidea inbertsio osoan izango da aginduzko.

Aukera horretaz baliatu nahi duen subjektu pasiboak idatziz jakinarazi behar dio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari kontratua sinatu den egunetik hilabete pasatu baino lehen, eta kontratatutako inbertsioaren kopurua eta ondasunak emateko eta ordaintzeko ezarritako egutegia adierazi behar dizkio. Halaber, horrekin batera kontratuaren kopia ere bidali behar dio.

Taula honetan ezartzen dena 18. A orrialdera eramango du programak.

Bigarren taula ekoizpen zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioen kenkariak (37/2013 FA, 15. xedapen gehigarria) adierazteko erabili behar da; kontzeptu hauek agertu behar dira:

(3200) laukia: ekoizpenaren titulua.

(3201) laukia: ekoizpenaren guztirako kostua.

(3202) laukia: ekoizpenaren kostua, banakatuta; ekoizle bat bakarrik badago, (3201) laukikoa bera izango da.

(3203) laukia: kopiak egiteko gastuak eta publizitateak eta promozioak eragiten dituzten gastuak, ekoizlearen kargurakoak.

(3204) laukia: dirulaguntza eman duen erakundea. Batzuk badira, "hainbat" jarriko da.

(3205) laukia: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

(3206) laukia: ekoizpen motaren arabera aplikatu beharreko muga; izan ere, artikulua honetan arautzen diren kenkariaren zenbatekoa eta zergadunak film luze edo ikus-entzunezko lan bakoitzagatik jasotako gainerako laguntzak batzearen emaitza ezin da izan ekoizpen kostuaren ehuneko jakin bat baino gehiago. Horretarako, honakoetako bat hautatu behar da goitibeherakoan:

- Ikus-entzunezko lan zaila, % 100eko muga: Bi kasutan hautatu behar da ha: mugarik aplikatzen ez bada, ikus-entzunezkoa zaila delako; lana Ekonomia Lankidetzako eta Garapenerako Erakundearen Garapenerako Laguntza Batzordearen zerrendako herrialde batzuek parte hartzen duten koprodukzioa bada.

- Mugaz gaindiko ekoizpena, % 60ko muga: Ekoizpena mugaz gaindikoa da, Europar Batasuneko estatu batek baino gehiagok finantzatzen dute eta ekoizleak Europar Batasuneko hainbat estatutakoak dira. Kenkari honen zenbatekoaren eta zergadunak jasotako gainerako laguntzen batura ezin da izan ekoizpen kostuaren % 60 baino gehiago.

- Muga orokorra, % 50: gainerako kasu guztiak. Kenkari honen zenbatekoaren eta zergadunak jasotako gainerako laguntzen batura ezin da izan ekoizpen kostuaren % 50 baino gehiago.

(3207) laukia kenkaria ordainketak egin ahala aplikatzea nahi dela adierazteko markatu behar da.

(3208) laukian kenkariaren oinarria adierazi behar da. Programak gehieneko zenbatekoa kalkulatu du, eta 19. orrialdeko (2506), (2604) eta (2620) laukietan ezarri ahal izango da, kasuan kasukoa, (3206) laukiko mugetako bat aplikatu behar bada. Kenkaria ordainketak egin ahala aplikatzea nahi dela adierazten bada, (3208) laukia gaituko da zenbatekoa jartzeko.

Taula hau programako 18 A orrialdera eramango da.

Hirugarren laukian mezenasgorako zerga pizgarriengatik kenkariak azaltzen dira. Irabazteko xederik gabeko erakundearen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko 16/2004 Foru Arauak arautzen ditu pizgarri horiek.

(5030) laukian erakunde onuradunaren IFZ adierazi behar da; (5031) laukian mezenasgoko lehentasunezko jardueratarako kopuruak zehaztu behar dira. 2018ko ekitaldirako, lehentasunezko jarduerak 34/2018 Foru Dekretuan daude jasota.

Programak 19. orrialdeko (2588) laukian jarriko du zenbatekoa; gainera, kenkariaren zenbatekoa kalkulatu du eta orrialde bereko (2590) laukian jarriko du.

- (5033) laukian entitate onuradunaren IFZ jarri behar da; (5034) mezenasgoko entitate onuradunentzako kopurua, kenkaria zerga oinarrian baino sortzen ez duena, zehaztu behar da (entitateak kontabilitateko gastu modura erregistratu behar du emaitzen kontuan).

Hirugarren taula honetan ezartzen dena 18. B orrialdera eramango du programak.

Laugarren taulan ekitaldian egindako inbertsioen ziozko kenkariak zehaztu behar dira:

Kenkariaren oinarria; hura kalkulatzeko, 37/2013 Foru Arauaren 67.2 artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan. Horrez gain, kenkariaren oinarria (% 10ekoa eta % 5ekoa) xehakatu egin beharko da (2500) eta (2615) laukietan.

Enplegua sortzeagatiko kenkariari dagokionez, mugagabeko kontratuarekin zergaldian kontratatutako pertsonaren urteko soldata gordinaren % 25en pareko kenkaria ezarri da, eta kontratazioaren unean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino % 70 handiagoa den ordainsaria. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langileak egindako lanaldiaren arabera izango da, lanaldi osoari dagokionez.

Kenkaria gehienez 5.000 eurokoa izango da kontratatutako pertsona bakoitzeko.

Lanertzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako pertsonen kasuan, kenkaria kopuru horren halako bi izango da.

Ekitaldian sortutako kenkaria egiaztatzeko, kenkarirako eskubidea duten langileen kopurua adieraziko da lauki hauetan: (2551) (laneratze zaila) eta (2554) (gainerakoak). Erakundeak bidezkoa den kenkariaren zenbatekoa kalkulatu du, soldataren arabera eta adierazitako mugak kontuan izanik, (2553) eta (2556) laukietan, dagokionaren arabera.

Programak inbertsio mota bakoitzari dagokion kenkariaren zenbatekoa kalkulatu du, 37/2013 Foru Arauko 61., 65. eta 66. artikuluetan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian, nekazaritzako zerga neurriei buruzko 17/1997 Foru Arauko 12.2. artikuluan, 16/2004 Foru Arauko 29. artikuluan eta 2018rako lehenasuneko mezenasgo jarduerak zehazten dituen 34/2018 Foru Dekretuan ezartzen denaren arabera.

Kenkari horiek % 35eko aplikazio muga izango dute kuota likidoaren gainean, behin kenduta, hala badagokio, (1539) laukiko babes bereziko kooperatibetarako kenkaria. Kuota nahikoa ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga bera errespetatuta. 2/2018 Foru Arauaren bosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat etorriz, 2018koa baino lehenagoko ekitaldietan sortu eta aplikatzeke dauden kenkariak aplikatzera, kenkari horiek sortu ziren unetik aurrera zenbatuko dira 30 urteak.

Taula honetan ezartzen dena 19. orrialdera eramango du programak.

Bosgarren taulan oraingo ekitaldian eta aurreko ekitaldietan sortutako baterako mugadun kenkarietatik oraingo ekitaldian aplikatu den zenbatekoa zehaztu behar da.

“Ekitaldia” zutabearen kenkari eskubidearen sorkuntza noiz hasi den zehazten da.

Gainerako zutabeetan kenkariaren zenbatekoak (ez inbertsioenak) agertzen dira. Azken hiru zutabeetako zenbatekoen batura “sortutako zenbatekoa” da.

Kuotaren gaineko % 35eko baterako muga duten eta aitortutako ekitaldikoak diren kenkariaren zenbatekoa laugarren laukian kalkulatu da; (2594) gakoak.

Programak orrialde honetako (1522) laukian jarriko du laugarren taulako (6365) laukian ageri den zenbatekoa.

Taula honetan ezartzen dena 20.B orrialdera eramango du programak.

Oraingo ekitaldiko kuotaren gaineko % 70eko baterako muga duten kenkariak

Orrialde honetako 1523 laukiko goitibeherako menuko taulak bete behar dira.

Lehenengo koadroan, 37/2013 Foru Arauaren 62. artikuluan definitutako ikerketa eta garapen jarduerak egiteagatiko kenketari buruzko informazioa beteko da. (Lehenengo koadro horretan ez dira sartuko 37/2013 Foru Arauaren 63. artikuluko berrikuntza teknologikoko jarduerak).

Ikerketa eta garapen proiektu bakoitzerako, informazio hau emango da:

Proiekturako txosten arrazoitua badago (37/2013 Foru Arauaren 64. artikulua bigarren idatz zatiak aipatzen duena, SPRIk egina), 3229 laukitxoan erakunde horrek jarritako espediente zenbakia ipiniko da. Bestela, laukitxo hori beteko da enpresak proiektuari bere azalpen memorian emandako akronimoarekin.

3230 laukitxoan, ekitaldian proiektu bakoitzerako egindako ikerketa eta garapeneko gastuak sartuko dira (ez dira sartuko inbertsioak, hala behar izanez gero, 37/2013 Foru Arauaren 62.4 artikulua b hizkiko % 10eko kenketarako eskubidea ematen badute ere).

3231 laukitxoan, proiektua egiteagatik jasotako dirulaguntzen zenbatekoa jarriko da.

3232 laukitxoan, programak kenketa oinarria kalkulatu du proiektu bakoitzerako, gastuetatik kenduta jasotako dirulaguntzei 100 eta erakundeari aplikatu beharreko karga tasaren aldea aplikatuz ematen duen zenbatekoaren gastuak.

3233, 3234 eta 3235 laukitxoetan, jarriko da ea badagoen SPRIren ziurtagiria edo beste ziurtagiri batzuk eta urte anitzeko proiektua den ala ez. 3236 eta 3237 laukitxoetan, proiektua zein ekitaldian zehar luzatzen den jarriko da.

3238 laukitxoan, programak batuko ditu erakundeak ekitaldian egindako ikerketa eta garapeneko proiektu guztien gastuak eta 3239 laukitxoan, proiektu horiek direla eta jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, guztira.

3240 laukitxoan, programak proiektuen kenketa oinarriak batuko ditu. 3240 laukitxoko zenbatekoa bat etorriko da erakundeak hurrengo koadroko 3000 eta 3003 laukitxoetan jarritako zenbatekoen batuketarekin.

Taula honetan ezartzen dena 18.B orrialdera eramango du programak.

Bigarren taulan mota honetako kenkariak zehaztu behar dira, inbertsio motaren arabera banatuta, 37/2013 Foru Arauko 62. eta 63. artikuluetan ezarri denarekin bat etorritik.

Zergadunak 3000 laukitxoan jarritako zenbatekoa, zergaldian ikerketa eta garapeneko jarduerak egitean izandako gastuen zenbatekoa aurreko bi urteetan egindakoen batez bestekora arte, gehi 3003 laukitxoan jarritako zenbatekoa, ikerketa eta garapeneko gastuen soberakina zergaldian batez besteko horren gainean, bat etorriko da aurreko koadroko 3240 laukitxoko zenbatekoarekin.

Taula honetan ezartzen dena 19. orrialdera eramango du programak.

Hirugarren taulan oraingo ekitaldian eta aurreko ekitaldietan sortutako mugarik gabeko kenkarietatik oraingo ekitaldian aplikatu den zenbatekoa zehaztu behar da.

Kenkariak ezin dira izan kuota likidoaren % 70 baino handiagoak. Kenkariren bati aldi berean bi muga horiek aplikatu behar bazaizkio, % 70eko muga honako honi aplikatuko zaio: % 35eko baterako muga aplikatu ondoko kuota likidoaren soberakinari.

“Ekitaldia” zutabearen kenkari eskubidearen sorkuntza noiz hasi den zehazten da.

Gainerako zutabeetan kenkariaren zenbatekoak (ez inbertsioenak) agertzen dira. Azken hiru zutabeetako zenbatekoen batura “sortutako zenbatekoa” da.

Lauki hauetan sartu ahalko dira aurreko ekitaldietakoak diren eta honelako kenkariak aplikatzeke dituzten zenbatekoak, baldin eta aitortutako zergaldian oraindik indarrean badaude.

Aitortutako ekitaldiari aplika dakizkiokeen kuota kenkariaren zenbatekoa, 37/2013 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluetan ezarritakoa betez, bigarren koadroan kalkulatu da: 3027 laukia.

Programak 1523 laukira eramango du taula honetako 6465 laukiko zenbatekoa.

Kuota nahikoa ez izateagatik kendu ez diren kopuruak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga bera errespetatuta. 2/2018 Foru Arauaren bosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat etorritz, 2018koa baino lehenagoko ekitaldietan sortu eta aplikatzeke dauden kenkariak aplikatzera, kenkari horiek sortu ziren unetik aurrera zenbatuko dira 30 urteak.

Taula honetan ezartzen dena 20.B orrialdera eramango du programak.

Kuota efektiboa

Kuota efektiboa inolaz ere ezin da izan negatiboa: aplikatutako kenkariak kuota likido osoa irensten badute, zero da; kenkariak horretara iristen ez badira, positiboa.

- Ondare sozietateak: $(1550) = (1514) - (1545)$

Gainerako sozietateak: $(1550) = (1521) - (1539) - [(1522) + (1523)]$

Gutxieneko zerga ordainketa (37/2013 F Aren 59. art.)

Kuota efektiboari muga bat ezarri zaio behetik; horrela, zerga oinarri positiboak dituzten zergadunentzat, kuota likidoari kenkariak (I+G+b-ren kenkaria izan ezik) aplikatuz ateratzen den kuota efektiboa ezin da izan zerga oinarriaren ehuneko karga tasen arabera ezarriak baino txikiagoa. Ehuneko horiek gutxitu egiten dira baldin erakundeak, aurreko ekitaldiarekin alderatuz, bere horretan atxikitzen badu edo handitu egiten badu lan plantillan lan kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa. Hona hemen ehuneko horiek:

Karga tasa	I+G+b kenkariaren aurreko kuota efektiboa (zerga oinarriaren gaineko %)	I+G+b kenkariaren aurreko kuota efektiboa, lan kontratu mugagabekoen plantilla bere horretan atxiki badu edo handitu egin badu.
%26	%15	%13
%22	%13	%11
%20 (ez Koop.)	%10,75	%8,75
%33	%18,25	%16,25
%20 (Koop.)	%9	%7
%18	%8	%6
%28	%13	%11

Babes bereziko kooperatiben kasuan, kuota likidoaren % 50 edo % 75eko kenkaria aplikatzen bada, ehunekoak proportzio berean murriztuko dira.

Gutxieneko zerga ordainketa aplikatu behar bada, programak berriro kalkulatu du kuota muga duten kenkariak aplikatu beharreko zenbatekoa, eta automatikoki markatuko du (1540) laukitxoan "X" bat.

Higiezin errentamenduagatik jasandako atxikpenak

16. orrialdeko (1554) laukiko goitibeherakoan honako datu hauek ezarri behar dira: (5036) laukian errentariaren IFZ, (5037) laukian errentariaren egoitza dagoen probintzia eta (5038) laukian errentariak jasandako atxikipenaren zenbatekoa.

Taula honetan ezartzen dena 18B orrialde informatiboan agertuko du programak.

Arabako LHan egindako eragiketen ehunekoa.

Programaren 2. orrialdeko 025 laukian ("Baterako zerga-ordainketa") ez bada zehazten Arabako Lurralde Historikoan egindako eragiketen ehunekoa, programak ezarriko du. Berezko balioa % 100 da.

025 laukia markatzen bada, 1557 laukian zabaltzen den goitibeherakoa bete behar da.

Zergak Estatuari, Euskal Autonomia Erkidegoko foru administrazioei edota Nafarroako Foru Komunitateari batera xedapen hauetan arautzen da: Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartu duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea eta Nafarroako Foru Komunitatearekiko Ekonomia Hitzarmena onartu duen abenduaren 26ko 28/1990 Legea (Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Ekonomia Hitzarmena aldatzen duen uztailaren 15eko 25/2003 Legea eta 25/2003 Legearen osagarria den uztailaren 15eko 10/2003 Lege Organikoa).

Ordainketa zatikatuak

(1572) laukian erakundeak egindako ordainketa zatikatuaren zenbatekoa adieraziko da, hala badagokio, 37/2013 Foru Arauaren 130.bis artikuluan ezarritakoaren arabera, betiere ordainketa hori benetan egin bada Arabako Foru Aldundian.

IEE eta ABEEek egotzitako zatikako ordainketak

Erakunde aitortzaileari horrelako sozietateek egotzitako zatikako ordainketen zenbatekoa adierazi behar da (Arabako Foru Aldundiari egindakoena). Erakunde aitortzailea Espainiako ekonomia intereseko elkarte bada, lauki hauetan Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren bazkideei egotzi behar ez zaizkien zatikako ordainketak zehaztu behar ditu.

Aurreko ekitaldietan aplikatutako onurak galtzeagatik gehikuntza / Aurreko gehikuntzaren gaineko berandutze korrituak edo 37/2013 FA 51.3 artikulua berandutze korrituak

1560 eta 1561 laukietan aurreko ekitaldietan gozatu arren eskatzen diren baldintzetako bat ez betetzeagatik oraingoan aplikatu ezin diren kenkari edo zerga kredituen zenbatekoak adierazi behar dira. Halaber, bidegabeko zerga onura aplikatu denetik aitorpen honen sarrera egin arteko berandutze korrituak ere zenbatu behar dira.

1561 laukitxoan, berandutza interesak ere sartuko dira, hain zuzen, 37/2013 Foru Arauaren 51. artikulua enpresa kapitalizazioa sustatzeko konpentsaziorako erreserbaren betekizunak ez betetzeagatik, zerga ondorioetarako erakundearen ondare garbian egindako kenketagatik edo erreserba hori kenkaria aplikatzen duten zergaldia amaitzen denetik bost urteko epea igaro aurretik baliatu delako.

Karga berezia aplikatzea (37/2013 FAren 14. XGa)

(1541) laukitxora eramango da 22B orrialdeko (7539) laukitxoan adierazitako zenbatekoa. Atzerriko balioak edukitzeko erakundearen kasuan, 37/2013 Foru Arauaren hamahirugarren xedapen iragankorrari heldu badiote eta (7540) laukitxoan X markatu dute badute, zenbateko hori ez da aldatuko laukitxo batetik bestera.

Egoitza aldaketen eta establezimendu iraunkorrei uztearen ondoriozko kuota geroratua

Egoitza edo ondare gaiak Europar Batasuneko beste estatu batera aldatzeari dagokion kuotaren ordainketa geroratu egiten da (37/2013 FAren 41.2 eta 102.2 artikulua a eta c idatz zatiak).

Aurreko aitorpenean sartutako / itzultako zenbatekoa

Aurkezten den aitortzea zergaldi bereko aurreko beste aitortpen baten osagarria bada, aurreko aitortpenaren emaitza minus (-) edo plus (+) zeinua aurretik duela jarri behar da, haren emaitza zein izan den, kuota bat sartzea edo itzultzea, hurrenez hurren.

Berandutza korrituak / erreargua

Dagokion erreargua edo berandutze interesa aplikatuko da, Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako kasu eta baldintzetan.

17A ETA 17B ORRIALDEETAKO JARRAIBIDEAK

LEHENENGO APLIKAZIOAREN ONDORIOZKO DOIKUNTZAK KONTABILITATEKO EMAITZAREN ZERGA ZUZENKETAK: XEHETASUNAK ZERGA KENKARIRIK EZ DUTEN GASTUAK (37/2013 F Aren 31. ART.)

Kontabilitateko Plan Orokor berriaren lehenengo aplikazioagatiko doikuntzen zerga araubidea (60/2002 FD, laugarren xedapen iragankorra).

Bat. Azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorren edo azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onartutako Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitateko Plan Orokorren eta mikroenpresentzako kontabilitateko irizpide zehatzen lehenengo aplikazioaren ondorioz gastu edo sarreratzat, hurrenez hurren, hartzen diren erreserba partidetarako karguak eta ordainketak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldiko zerga oinarrian sartuko dira, Zergari buruzko Foru Arauan eta foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Horretarako, gastuak eta sarrerak, hurrenez hurren, ondare garbian gertatzen diren gutxikuntzak eta gehikuntzak izango dira, hain zuzen ere Merkataritza Kodeko 36. artikuluko 2. idatz zatian deskribatzen direnak. Beraz, norberaren ondareko tresnei dagokien partida bajak ez dira gastutzat joko.

Bi. Aurreko idatz zatian aipatutako erreserba ordainketek eta karguek ez dute zerga ondorioz izango, baldin eta aipatutako data baino lehen hasitako zergaldietan indarrean egon diren kontabilitateko arau eta printzipioekin bat etorritz egin eta kontabilizatu gastu edo sarrerekin zerikusia badute. Ezinbestekoa da, gainera, zergaldi horietako zerga oinarrian integratzea.

Erreserba kontuetarako ordainketa eta kargu horiek gastuak edo sarrerak sortzapenaren ondorioz berriro kontabilizatu diren zergaldiko zerga oinarrian sartuko dira, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorren edo azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuak onartutako Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitateko Plan Orokorren eta mikroenpresentzako kontabilitateko irizpide zehatzetan ezarritako kontabilitate irizpideekin bat etorritz.

Hala ere, erreserba kontuetarako ordainketek aktiboaren ondare elementuen balio-galerarengatiko zuzenketen ondoriozko gastuekin zerikusia badute, ordainketak ondare elementuak eskualdatzen diren edo narriaduraren ondoriozko galera gertatzen den zergaldiko zerga oinarrian integratuko dira.

Aurreko paragrafoan aipatutako erreserba konturako ordainketaren zenbatekoa Zergari buruzko Foru Arauko 12. artikuluko 8. idatz zatian aipatutako diferentzia bada, kasu hauetan soilik sartuko da zerga oinarrian: aktiboa eskualdatuz gero edo narriaduraren ondoriozko galeraren eragilea diferentzia hori izanez gero.

Hiru. Aurreko idatz zatian aipatutako kasuetan zergapekoak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez ezartzen dituen betebeharrak formalak bete behar ditu. Hain zuzen ere, zergaldi bakoitzean aurreko bigarren idatz zatian ezarritakoa aplikatzen zaien erreserba kontuetarako karguen eta ordainketen berri eman behar du, bai eta zergaldiko zerga oinarrian sartutako kopuruaren eta hurrengo zergaldietan sartzeko utzitako zenbatekoen berri ere.

Lau. Aurreko bi idatz zatietan xedatutakoaren aplikazioak salbuespen bat dauka: zergapekoak lehenengo idatz zatian aipatutako erreserba kontuetarako ordainketa eta karguen saldo garbia, positiboa zein negatiboa, zerga oinarrian sartzea hautatzen badu, ez da aplikatuko. Hala gertatuz gero, xedapen iragankor honetako hurrengo idatz zatian ezarritakoa aplikatu ahal izango du.

Bost. Zergapekoak erreserba kontuetarako ordainketen eta karguen saldo garbia, positiboa zein negatiboa, aurreko bigarren eta laugarren idatz zatietan ezarritakoaren arabera zerga ondorioak sortu badituzte, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren lehen bost zergaldietako zerga oinarrietan hainbana integratzea hauta dezake.

Sei. Xedapen iragankor honetako lehenengo lau idatz zatietan ezarritakoa ondoko doikuntzei ere aplikatuko zaie, haien kontrapartida erreserba partida bat bada: azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuko xedapen gehigarri bakarrean eta azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuko lehenengo eta bigarren xedapen

gehigarrietan ezarritakoaren ondorioz Kontabilitateko Plan Orokorra edo Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitateko Plan Orokorra aplikatuta eta mikroenpresentzako kontabilitateko irizpide zehatzak bertan behera utzita egiten diren doikuntzei.

Ondorioz, 2008an zergadunak 60/2002 FDko laugarren xedapen iragankorreko laugarren puntuan xedatutakoa, edo bosgarren puntuan xedatutakoa, edo bietan xedatutakoa hautatu ez bazuen, 60/2002 FDko laugarren xedapen iragankorreko bigarren puntuko (1218, 1219, 1220, 1222, 1226, 1227, 1228, 1230) laukiak beteko ditu. Programak koadroko gainontzeko laukiak kalkulatu eta emaitza 1229 eta 1233 laukietatik, 14. orrialdeko 1072 eta 1073 laukietara eramango ditu.

Kontabilitateko emaitzaren zuzenketak, xehekatuta (Sozietateen gaineko Zergaren zuzenketa bazter utzita)

Galera eta irabazien kontuaren emaitzan zuzenketak (SZren zuzenketa bazter utzita) egiten dituzten erakundeek 14. orrialdeko taula bete behar dute, zerga zuzenketako kontzeptu bakoitzeko ondoko datuak zehaztuta: burutu gabeko saldoa ekitaldiaren hasieran, ekitaldiko zuzenketaren zenbatekoa eta geratzen den saldoa, hau da, hurrengo ekitaldietako zerga oinarrien integrazioan gehikuntza edo gutxikuntza gisa zenbatuko dena.

Informazioa gero orrialde honetako "Kontabilitateko emaitzaren zuzenketak, xehekatuta (Sozietateen gaineko Zergaren zuzenketa bazter utzita)" taulara eramango da.

Zerga kenkaririk ez duten gastuak (37/2013 FAren 31. art.)

Galera eta irabazien kontuaren emaitzan mota honetako gehikuntzak bete dituzten erakundeek 14. orrialdeko (1032) gakoaren ondoan dagoen goitiberakoa bete behar dute.

Lauki hau bost bloketan banatuta dago:

-Lehenengo zatian harreman publiko, opari eta turismo ibilgailuengatik kenkaririk ez duten gastuak (37/2013 FAren 31.1 i), 31.2 a), 31.2 b) eta 31.3 a) art.) agertzen dira. Erakundeak mota honetako gastuak kontabilizatu baditu, gastuei dagokie informazioa eman behar du. Entitateak kontzeptu horiengatik kopururik kontabilizatu ez badu, X batez markatu behar du (7000) laukia.

-Bigarren blokeak partaidetza maileguren interesengatik gastuak aipatzen ditu (37/2013 FAren 31.5 art.), kontzeptu hori dela-eta kendu ahal diren eta ezin diren gastuak zehaztuz.

-Hirugarren blokean sartuko dira Pentsio Funtz eta Planei buruzko Legearen testu bateratuak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen zerga araubideari buruzko foru arauak arautzen dituzten kontingentzien berdinak edo antzekoak estaltzeko horniduretarako edo barne funtsetarako zuzkidurak, 37/2013 FAren 31.1.f artikuluan xedatutakoaren arabera kendu ezin daitezkeenak.

-Laugarren blokean gastu hauek sartuko dira: pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketegi dagozkien gastuak, baldin eta, haien kalifikazio fiskal desberdinaren ondorioz, ez badute diru sarrerarik sortzen, edo sortzen duten diru sarrera salbuetsita badago, edo % 10etik beherako karga nominala badu.

-Bosgarren blokeak aipamen egiten die 37/2013 Foru Arauaren 31. artikuluan aipatzen diren eta zergetan kendu ezin diren beste gastu batzuei. Aurreko lau blokeetan zerrendatutakoez bestelakoak dira, eta (7015) laukian jasoko dira.

14. orrialdeko (1032) laukitxoan adierazitako zenbatekoa bat etorri beharko da lauki honetako gastu zerga kenkaririk gabeko hauen baturarekin, (7005) + (7008) + (7011) + (7014) + (7045) + (7048) + (7049) + (7050) + (7015)

Taula honetako informazioa 17. orrialdera eramango du programak.

18. A ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

KORRONTEAK EZ DIREN AKTIBO BERRIETAN EGINDAKO INBERTSIOEN ZIOZKO KENKARIA

EKOIZPEN ZINEMATOGRAFIKOETAN ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN EGINDAKO INBERTSIOENGATIK APLIKA DAITEZKEEN KENKARIAK

Orrialde honetako datuak informatiboak dira. 16. orrialdeko 1522 laukiko goitibeherakotik hartu dira.

KORRONTEAK EZ DIREN AKTIBO BERRIETAN EGINDAKO INBERTSIOEN ZIOZKO KENKARIA (37/2013 FA, 61. art.)

Taula hau nahitaez bete behar da korronteak ez diren aktibo berrietan egindako inbertsioengatik kenkaria aplikatzeko eskubiderik sortu bada (37/2013 FA, 61. artikulua).

Kontuan eduki behar dira ondokoak:

Inbertsioen ezaugarriak:

Oro har: ibilgetu materialeko edo ekonomia ustiategi bati atxikitako higiezin inbertsioetako zati diren aktibo ez-korronte berriak. Lurzoruak salbuetsita daude.

Bai eta ere:

- Leasing bidez erositako aktiboak.
- Aplikazio informatikoak.
- Zaharberitutako industria pabilioien edo zaharberritu beharreko pabilioien erosketa.
- Norberaren industria pabilioiak zaharberritzea.
- Kontzesiodun enpresek azpiegituretan egindako eta ukiezin eta finantza aktibo gisa kontabilizatutako inbertsioak.

Inbertsioen betekizunak:

- Berria: beste pertsona batek erabili gabea eta, funtzionatzen hasi aurretik, beste pertsona baten ibilgetura ez gehitua.
- Ekonomia ustiategi bati atxikia.
- Aktibo ez korrontean kontabilizatzea.
- Gutxieneko amortizazio aldia > 5 urte (informatika ekipoak izan ezik).
- Zenbait garraibideren gaineko zerga berezia ez ordaintzea (renting-a izan ezik).
- Zerga pizgarria izan dezaketen inbertsioen zenbatekoak honako kopuru hauek baino handiagoa izan behar du:

a) datu hauen baturaren % 10 baino handiagoa: aktibo finkoko aurreko kontabilitateko balio garbiak (aurreko urteko zergaldiaren azken eguna), baturatik kenduta amortizazioak eta narriaduraren ondoriozko galerak (ibilgetu materiala + higiezin etako inbertsioak + aplikazio informatikoak + azpiegituretako inbertsioak);

b) edo 5 milioi euro baino handiagoa

Azken betekizuna ezin betetzea dakarren desfektaziorik gertatzen bada, kenkari osoa galtzen da, eta horrek berekin ekarriko du ekitaldian kuota + interesak erregularizatu beharra.

Kenkariaren zenbatekoa:

- Oro har, % 10
- Kasu hauetan % 5eko kenkaria izango dute:

- Zergadunak bere aktibo ez korronteko gaietan egiten dituen eta kontabilitatean hobekuntza moduan agertzen diren inbertsioek. Kasu horretan, zergadunak administrazioa lotesteko prozedura abiarazi ahal izango du Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zerga administrazioak % 10eko kenkari tasa aplikatzeko baimena eman dezan, inbertsioa dela-eta aktiboan gertatzen den egiturazko aldaketari eta aldaketa funtzionalari esker aktiboa beste xede batzuetarako erabili ahal denean.

Errentamendu operatiboetan, errentan emandako edo lagatako elementuan errentatzaileak egiten dituen inbertsioek.

Kontabilitateko balioa zehazteko, inbertsioa egin den ekitaldiaren aurreko zergaldiko azken eguneko balantzea aplikatuko da, egun horretan inbertsioaren xede den aktibo finkoari dagokiona zenbatu gabe.

Kontzeptuak:

- (a) Aurreko ekitaldiko kontabilitate balio gordina: Kontabilitate Plan Orokorreko kontuen aurreko ekitaldiko azken eguneko kontabilitate balio gordina jarriko da, finantza errentamenduaren araubidean eskuratutako eta plan horretako 217 kontuan kontabilizatutako ondasunak erosteko aukeraz baliatzerakoan kontabilizatu beharko diren kontuan sartuta.
- (b) Inbertsioaren zenbatekoa: finantza errentamenduaren araubidean egindako inbertsioak bidezko laukietan sartu behar dira, erosteko aukera gauzatzekoan kontabilizatzen diren Kontabilitate Plan Orokorreko kontuaren arabera.
- (d) Kenkariaren oinarria $\{(b) - [(c) \times 1 - (tg/100)]\}$
Kenkariaren oinarrian itundutako kontraprestazio osoa sartu behar da, baina ondokoak ez: korrituak, zeharkako zergak eta errekaratuak: hauek ez dira konputatu behar, aktiboen balioespenean zer diren kontuan eduki gabe.

Kenkariaren oinarria, horrela kalkulatu, ezin izango da merkatuan egoera normalean eta pertsona independenteen artean adostuko zen prezioa baino gehiago izan.

Inbertsioak ondasun higiezinetan egin badira, lurraren balioa kenkariaren oinarritik kanpo utzi behar da.

Halaber, bidezkoa denean, kenkariaren oinarritik zenbateko hau kendu behar da: aurreko III. kapituluko kenkariak dagozkien inbertsioetarako edo jardueren sustapenerako jasotako kapital dirulaguntzei eta ustiapenerako dirulaguntzei % 100en eta erakundeari aplikatu beharreko karga tasaren arteko diferentzia aplikatzearen emaitza.

- Guztira 3151, 3152 eta 3156: zutabeetako kopuruen batura.
- Aurreko ekitaldiko amortizazio metatua (3153): aurreko ekitaldiko azken egunean adierazitako kontuetan metatutako amortizazioaren batura.

Balio narriadurarengatik galera (3160): adierazitako kontuen balio narriaduraren batura, aurreko ekitaldiko azken egunean.

- Aurreko ekitaldiko kontabilitate balio garbia: $(3154) = (3151) - (3153) - (3160)$

$(3155) =: (3152) / (3154) \times 100$. Automatikoki kalkulatzen du programak.

- -67.4 artikuluan ezarritakoa (3158): artikulua horretan ezarritakoari helduz gero, Administrazioari noiz jakinarazi zaion zehaztu behar da (3159).

EKOIZPEN ZINEMATOGRAFIKOETAN ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN EGINDAKO INBERTSIOENGATIK APLIKA DAITEZKEEN KENKARIAK

Aitortutako ekitaldian kenkaririk sortu bada ekoizpen zinematografikoetan eta ikus-entzunezkoetan egindako inbertsioengatik, lauki hau nahitaez bete behar da 16. orrialdeko (1522) laukiaren ondoko menu zabalgarriaren bidez.

18. B ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIAK

I+G-KO JARDUEREN KENKARIARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO (37/2013 FA 62. ART.)

HIGIEZINEN ERRENTAMENDUAGATIK JASANDAKO ATXIKIPENAK

Orrialde honetako datuak informatiboak dira. 16. orrialdeko 1522 laukiko goitibeherakotik hartu dira.

MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIAK (16/2004 FA, 18., 22. eta 29. art.)

Lauki hori nahitaez bete behar da 16. orrialdeko (1522) laukiaren ondoan irekitzen den menu zabalgarritik, baldin eta aitortutako ekitaldian kenkariak sorrarazi badira mezenasgorako zerga pizgarrien bidez (16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoak, 18., 22. eta 29. artikuluetan arautzen dituen zerga pizgarrien bidez, alegia).

2018ko ekitaldirako, lehentasunezko jarduerak 34/2018 Foru Dekretuan daude jasota.

I+G-KO JARDUEREN KENKARIARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO (37/2013 FA 62. ART.)

Taula hau 16. orrialdeko (1523) laukiko goitibeherakotik bete behar da.

HIGIEZINEN ERRENTAMENDUAGATIK JASANDAKO ATXIKIPENAK

Lauki hori nahitaez bete behar da 16. orrialdeko (1554) laukiaren ondoan irekitzen den menu zabalgarritik, edo, hala badagokio, 4. orrialdeko (3623) laukiaren ondoan irekitzen den menu zabalgarritik.

19. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ORAINGO EKITALDIAN SORTUTAKO KENKARIAK

Ondare sozietateei ez zaie aplikatuko 37/2013 Foru Arauaren 60. artikulua 4. apartatua dioena, ez eta arau horrek 61. artikulutik 67. artikulura dioena ere

Orrialde honetako datuak informatiboak dira. 16. orrialdeko 1522, 1523, 1545, 1546 1548 eta 1544 laukietako goitibeherakoetatik hartu dira.

Kuotaren gaineko baterako muga duten eta ekitaldian egiaztatu diren kenkarien laukietan kenkariaren oinarria adierazi beharko da, eta 37/2013 Foru Arauaren 67. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuko da oinarri hori zehazteko.

Enplegua sortzeagatik kenkariari dagokionez, 37/2013 Foru Arauaren 66. artikuluan ezarritako baldintzak eta mugak kontuan hartuko dira kenkari hori kuantifikatzeko.

Geroago egiaztatzeko errekerimendurik egin ezean, ez da beharrezkoa izango egindako inbertsioen frogagiriak eranstea.

Oraingo ekitaldiko kuotaren gaineko % 35eko baterako muga duten kenkariak

Taula honetako datuak 16. orrialdeko 1522 laukiko goitibeherakotik hartu dira.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauan (61.,65., eta 66. Artikuluak eta hamabosgarren. Xedapen Gehigarria), Nekazaritzako Zerga Neurriei buruzko 17/1997 FAko 12.2. artikuluan eta Ekimen Pribatua Interes Orokorreko Jardueretan Parte Hartzeko Zerga Pizgarriei buruzko 16/2004 Foru Arauan (29. artikulua) eta 2018rako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen 34/2018 Foru Dekretuan arabera aplikatu daitezkeen kenkarien zenbatekoak zehaztu behar dira, inbertsio motaren arabera.

Kenkari hauek muga daukate: kuota likidoaren % 35.

Oraingo ekitaldiko kuotaren gaineko % 70eko baterako muga duten kenkariak

Taula honetako datuak 16. orrialdeko 1523 laukiko goitibeherakotik hartu dira.

Taula honetan mota honetako kenkariak zehaztu behar dira, inbertsio motaren arabera banatuta, 37/2013 Foru Arauko 62. eta 63. artikuluetan ezarri denarekin bat etorritik.

Kenkariak ezin dira izan kuota likidoaren % 70 baino handiagoak. Kenkariaren bati aldi berean bi muga horiek aplikatu behar bazaizkio, % 70eko muga honako honi aplikatuko zaio: % 35eko baterako muga aplikatu ondoko kuota likidoaren soberakinari.

V. tituluko III. Kapituluan eta 15. Xedapen Gehigarrian aurreikusitako kenkari guztien arauak

Kuota nahikoa ez izateagatik kendu ez diren kopuruak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga bera errespetatuta. 2/2018 Foru Arauaren bosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat etorritik, 2018koa baino lehenagoko ekitaldietan sortu eta aplikatzeke dauden kenkariak aplikatzera, kenkari horiek sortu ziren unetik aurrera zenbatuko dira 30 urteak.

Zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria (37/2013 FA, 60. Art.)

Nazioarteko zergapetze bikoitzagatiko kenkaria (37/2013 FA, 60.1. art.)

Taula honetako datuak 16. orrialdeko 1545, 1546 eta laukietako goitibeherakoetatik hartu dira.

Zergadunaren zerga oinarrian atzerrian lortu eta kargatutako errentak sartzen badira, kuota osotik kendu behar da zerga hau bezalako karga edo antzeko karga baten zioz atzerrian ordaindutako zenbatekoa.

37/2013 FAko 34. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren kasuetan, aurreko paragrafoaren xedatutakoaren ondorioetarako zenbateko hau soilik hartuko da kontuan: atzerrian zerga hau bezalako edo antzeko karga baten zioz benetan ordaindutako kopurutik 37/2013 FAko 33. artikuluko 1. idatz zatiko b) edo c) letran ezarritakoaren arabera zerga oinarrian integratu behar ez diren errentei dagokion zatia, hain zuzen ere partaidetzaren eskualdaketari esker lortutako guztirako errenten proportziozkoa.

Salbuespena, hobaria edo beste zerga onuraren bat dela eta ordaindu ez diren zergak ez dira kengarriak. Halaber, honetako 39. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz zerga oinarrian sartu ez diren errenten gaineko zergak ere ez dira kengarriak.

Zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena aplikatzen bada, kenkaria ezin da izan hitzarmenaren arabera ordaindu beharreko zerga karga baino gehiago.

Atzerrian ordaindutako zergaren zenbatekoa errentan sartuko da aurreko idatz zatiko ondorioetarako eta zerga oinarriari gehituko zaio, guztiz kendu ezin bada ere.

Zergadunak zergaldian zehar atzerrian errenta bat baino gehiago lortu badu, kenkaria herri berean eskuratutakoak batuz egingo da, salbu establezimendu iraunkorrekoak, azken hauetako bakoitzerako aparte konputatuko baitira.

Kenkaria ezin da izan zerga hau dela eta zerga oinarrian sartutako errentagatik ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

Halaber, Atzerrian ordaindutako zergak kenduz gero, kenkariaren zenbatekoa ezin da izan errenta Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren arautegiaren menpean dagoen erakunde batek ordainduz gero, hura dela eta ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

(1546) laukitxoko goitibeherakoan sartuko dira ekitaldi honetan sortutako kenkariei dagozkien datuak, (2370) laukitxoan hain zuzen ere.

(1546) laukitxora eramango du programak likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

19. eta 20.A orrialdera eramango da goitibeherako horretan adierazitako informazioa.

Ekonomiko zergapetze bikoitzagatiko kenkaria (37/2013 FA, 60.4. art.)

Taula honetako datuak 16. orrialdeko 1546 laukiko goitibeherakotik hartu dira.

Zerga oinarrian erakunde batek estatuan edo atzerrian ordaindutako dibidenduak edo mozkin partaidetzak sartuz gero, erakunde horrek dibidenduen iturri diren mozkinengatik benetan ordaindutako zerga karga kenduko da, hain zuzen ere dibidenduei dagokien zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori zergadunaren zerga oinarrian sartuta badago.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzeko ezinbestekoa da 37/2013 FAko 33. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezarritakoa betetzea; kasu horretan artikuluko bereko 3. eta 5. idatz zatietan xedatutakoa aplikatuko da.

Hori dela eta, benetan ordaindutako zergatzat hartuko da dibidendua banatzen duen sozietatean partaidetza duten erakundeek eta aldi berean azken hauek zuzeneko partaidetza duten erakundeek, eta horrela hurrenez hurren, ordaindutako zerga, dibidenduak ordaintzeko erabili diren mozkinnei egotzitako zatian, baldin eta partaidetza horiek ehuneko 5 baino txikiagoak ez badira (edo ehuneko 3 baino txikiagoak,

sozietateak antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen badu) eta 37/2013 FAko 33. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezarritako beharkizuna betetzen badute partaidetzaren edukitza aldiari dagokionez.

Idatz zati honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ondare sozietateei.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira.

(1546) laukitxoko goitibeherakoan sartuko dira ekitaldi honetan sortutako kenkariei dagozkien datuak, (2371) laukitxoan.

(1546) laukitxora eramango du programak likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

19. eta 20.A orrialdera eramango da goitibeherako horretan adierazitako informazioa.

Dibidenduak eta mozkin partaidetzei, nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena ez dagoenean, dagokie kenkaria (37/2013 FA, 60.5. art.)

Taula honetako datuak 16. orrialdeko 1546 laukiko goitibeherakotik hartu dira.

Zergadunaren errenten artean egoitza Espainiako lurraldetik kanpo duen erakunde baten dibidenduak edo mozkin partaidetzak badaude, hain zuzen ere egoitza Espainiako Erresumak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena (informazioa trukatzeko klausularekin) sinatuta ez daukan herrialde bateko erakunde batenak, zergadunak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria aplikatzea hauta dezake (kenkari hau ezin da bateratu artikuluko honetako aurreko idatz zatietako kenkariarekin): dibidenduei edo mozkin partaidetzei dagokien zerga oinarriaren ehuneko 18.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, dibidenduei edo mozkin partaidetzei dagokien zerga oinarria honela kalkulatu behar da: haien zenbateko osotik partaidetzaren inguruko gastuak kendu behar dira.

Idatz zati honetan xedatutakoa ez da aplikatuko kasu hauetan: dibidenduei edo mozkin partaidetzei foru arau honetako 33. Artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal bazaie; dibidenduak edo mozkin partaidetzak foru arau honetako 33. artikuluko 1. idatz zatiko c) letrako azken paragrafoan xedatutakoari dagokionez konputatzen ez den jarduera batean sortu badira; dibidenduak edo mozkin partaidetzak foru arau honetako 48. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran aipatzen diren jardueretako batek sortu baditu.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak ezin dira kendu kuotatik hurrengo ekietaldetan.

(1545) laukitxoko goitibeherakoan sartuko dira ekitaldi honetan sortutako kenkariei dagozkien datuak, (2372) laukitxoan hain zuzen ere.

(1545) laukitxora eramango du programak likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

19. eta 20.A orrialdera eramango da goitibeherako horretan adierazitako informazioa.

48. artikuluan ezarritakoaren arabera egoiliar ez diren erakundeek lortutako errenta positibo batzuk sartu behar dituzten zergadunei dagokie kenkaria (37/2013 FA, 60.6 art.)

Zerga oinarrian 37/2013 FAko 48. artikuluan ezarritakoaren arabera egoiliar ez diren erakundeek lortutako errenta positibo batzuk sartu behar dituzten zergadunek ondokoak kendu ahal izango dituzte kuota osotik:

a) Zerga hau bezalako edo antzeko zergak edo kargak, benetan ordainduak, hain zuzen ere zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia. Benetan ordaindutzat joko dira egoiliar ez den erakundeak eta hark partaidetza daukan erakundeek ordaindutakoak, baldin partaidetza ehunekoa foru arau honetako 33. artikuluko 1. idatz zatian aipatutakora heltzen bada.

b) Atzerrian dibidenduak edo mozkin partaidetzak banatzeagatik benetan ordaindutako zerga edo karga, bai zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen baten arabera bai herri edo lurralde hartako legeriaren arabera, hain zuzen ere lehendik zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.

Erakunde ez-egoilarraren kapitaleko partaidetza zeharkakoa bada, beste erakunde ez-egoiliar baten edo batzuen bitartez, azken horrek edo horiek benetan ordaindutako zerga hau bezalako edo antzeko zerga edo karga kenduko da, hain zuzen ere lehendik zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatia.

Kenkari hauek errenta positiboa zerga oinarrian sartu zen zergaldian ez ezik zergak beste zergaldi batzuetan ordaindu direnean ere aplikatuko dira.

Zerga paradisutzat jotzen diren herrialde eta lurraldeetan ordaindutako zergak ez dute kenkaririk sortuko.

(1546) laukitxoko goitibeherakoan sartuko dira ekitaldi honetan sortutako kenkariari dagozkien datuak, (2370) laukitxoan, 60.1 artikuluko kenkariarekin batera.

(1546) laukitxora eramango du programak likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

19. eta 20.A orrialdera eramango da goitibeherako horretan adierazitako informazioa.

22. xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko zergaren kargapeko sozietate zibilak (37/2013 Fako 22. xedapen gehigarria)

Taula honetako datuak 16. orrialdeko 1548laukiko goitibeherakotik hartu dira.

Sozietate zibil bateko bazkideei ALHko araudia aplikatu behar bazaie eta sozietate zibilari lurralde erkideko araudia (hots, sozietateen gaineko zergaren kargapean badago), bazkideek honela zuzenduko dute zergapetze bikoitza:

- Bazkide bakoitzak bere zerga oinarrian sartu behar du sozietate zibilak ekitaldi soziala amaitzen den egunaren ondoren amaitzen den zergaldian lortutako errenta positiboaren zati bat, bere partaidetzari dagokion zatia, hain zuzen. Errenta FAn ezartzen denaren arabera kalkulatu da.
- Kargengatik ordaindutako zenbatekoen zati bat kendu ahal izango dute kuota osotik, zerga oinarrian egotzitako errentaren dagokion zatia, hain zuzen. Kenkaria ezin da izan zerga hau dela eta zerga oinarrian sartutako errentatik ordaindu beharreko kuota osoa baino gehiago.
- Ez dira sartu behar zerga oinarrian sozietate zibilak emandako dibidenduak, ez eta haren partaidetza eskualdatuta lortutako errentak ere, baldin eta errenta horiek zerga oinarrian integratuta badaude.
- Zergaren autolikidazioarekin batera datu batzuk aurkeztu behar dituzte sozietate zibila identifikatzeko.

Ekitaldian sortutako kenkariaren datuak (1548) laukiko goitibeherakoan sartu behar dira.

Programak lauki horretan ezarriko du likidazioan aplikatutako zenbatekoa.

Goitibeherakoan ezarritako informazioa 19. orrialdeko (2380) laukian agertuko da.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kentzen ez diren zenbatekoak hurrengo zergaldietako kuota osoetatik kendu ezin izango dira.

20.A ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK
ZERGALDI DESBERDINETAKO KENKARIAK APLIKATZEKO TAULA
KENKARIAK ZERGAPETZE BIKOITZARENGATIK

Orrialde honetako datuak informatiboak dira. 16. orrialdeko (1545, (1546) eta (1548) laukietako goitibeherakoetatik hartu dira.

Kuota osoa nahikoa izan ez eta kendu ez diren zenbatekoak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izango dira
Ondare sozietateak ez zaie aplikatuko 60.4 artikuluan xedatutakoa.

Taula hauetan oraingo ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako kenkarien aplikazioa jasotzen da.

“Ekitaldia” zutabearen kenkari eskubidearen sorkuntza noiz hasi den zehazten da.

Gainerako zutabeetan kenkarien zenbatekoak (ez inbertsioenak) agertzen dira. Azken hiru zutabeetako zenbatekoen batura “sortutako zenbatekoa” da.

Lehen laukian 2014. eta hurrengo ekitaldietan zergapetze bikoitzarengatik sortutako kenkariak adieraziko dira.

37/2013 Foru Arauaren 60.1, 60.6 eta 60.4 artikuluetan zergapetze bikoitzarengatik sortutako kenkarien zenbatekoa, aitortutako ekitaldian, bat dator 19. orrialdeko (2370) eta (2371) laukietan zehaztutako balioen baturarekin.

Kuota nahikoa ez izateagatik aplikatu ez den eta 60.5 artikuluan jasota dagoen zergapetze bikoitzarengatiko kenkaria ezingo da aplikatu hurrengo ekitaldietan. Gauza bera gertatuko da 37/2013 Foru Arauaren 22. xedapen gehigarrian jasotako zergapetze bikoitzarengatiko kenkariarekin.

Bigarren laukian, 2013 ekitaldian eta aurrekoetan Estatuko zergapetze bikoitzarengatik sortutako kenkariak adieraziko dira.

Hirugarren laukian, 2013 ekitaldian eta aurrekoetan nazioarteko zergapetze bikoitzarengatik sortutako kenkariak adieraziko dira.

Programak 16. orrialdeko (1546) laukitxora eramango du 20A orrialdeko (6487), (6151) eta 6244) laukitxoetako balioen batura.

20.B ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ZERGALDI DESBERDINETAKO KENKARIAK APLIKATZEKO TAULA KUOTAREN GAINEKO BATERAKO MUGA DUTEN KENKARIAK

Orrialde honetako datuak informatiboak dira. 16. orrialdeko (1522) eta (1523) laukietako goitibeherakoetatik hartu dira.

ONDARE SOZIETATEAK

Ez zaie aplikatuko 37/2013 FAren 61.etik 67.era doazen artikuluetan xedatutakoa

GAINERAKO SOZIETATEAK

SZri buruzko 37/2013 FAko 60.8. art.: Kuota nahikoa ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira, muga bera errespetatuta

Taula hauetan oraingo ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako kenkarien aplikazioa jasotzen da.

“Ekitaldia” zutabearen kenkari eskubidearen sorkuntza noiz hasi den zehazten da.

Gainerako zutabeetan kenkarien zenbatekoak (ez inbertsioenak) agertzen dira. Azken hiru zutabeetako zenbatekoen batura “sortutako zenbatekoa” da.

Kuotaren gaineko % 35eko baterako muga duten kenkariak

- Oraingo ekitaldikoak

Lauki hauetan, oro har, 37/2013 Foru Arauan (61.,65., eta 66. artikulua eta hamabosgarren. Xedapen Gehigarria), Nekazaritzako Zerga Neurriei buruzko 17/1997 FAko 12.2. artikuluan eta Ekimen Pribatua Interes Orokorreko Jardueretan Parte Hartzeko Zerga Pizgarriei buruzko 16/2004 Foru Arauan (29. artikulua), eta eta 2018rako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen 34/2018 FDan ezarritakoa aplikatuta inbertsioei dagozkien kenkarien zenbatekoa ageri da.

Kuotaren gaineko baterako muga duten eta aitortutako ekitaldikoak diren kenkarien zenbatekoa bat dator 19. orrialdeko (2594) gakoan zehaztutako balioarekin.

- Aurreko ekitaldietakoak.

Aurreko ekitaldietakoak diren eta aplikatzeke dauden kenkarien saldoak aplikatu ahal izango dira, oraindik indarrean badaude eta mugak errespetatuta.

Programak 16. orrialdeko 1522 laukian jarriko du orrialde honetako 6365 laukian ageri den zenbatekoa.

Kuotaren gaineko % 70eko baterako muga duten kenkariak

Oro har, aurreko ekitaldietakoak diren eta indarrean dauden kenkarien zenbatekoak sartu beharko dira lauki horietan, bai eta, 37/2013 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluetan ezarritakoa betez, aitortutako ekitaldikoak diren kenkariak ere.

Kuotaren gaineko mugarik ez duten eta aitortutako ekitaldikoak diren kenkarien zenbatekoa bat dator 19. orrialdeko (3027) gakoan zehaztutako balioarekin

Programak 16. orrialdeko 1523 laukian jarriko du orrialde honetako 6465 laukian ageri den zenbatekoa.

Kuota likidoaren kenkariak aplikatzea

37/2013 Foru Arauaren V. tituluaren III. kapituluaren ezarritako kenkarien batura ezingo da izan kuota likidoaren % 35 baino handiagoa. Salbuetsita daude 62. artikulutik 64. artikulura ezarritako kenkariak, eta horien muga % 70ekoa izango da.

Kenkariaren bati aldi berean bi muga horiek aplikatu behar bazaizkio, % 70eko muga honako honi aplikatuko zaio: % 35eko baterako muga aplikatu ondoko kuota likidoaren soberakinari.

Kenkariak aplikatzeko hurrenkera:

- a) Aurreko ekitaldietako mugadun kenkariak (% 35eko muga ezarriko zaie).
- b) Oraingo ekitaldikoak diren eta % 35eko muga duten kenkariak.
- c) Aurreko ekitaldietakoak diren eta mugarik ez duten kenkariak (% 70eko muga ezarriko zaie, adierazitako baldintzetan).
- d) Oraingo ekitaldikoak diren eta % 70eko muga duten kenkariak (% 35eko muga duten kenkariekin aldi berean gertatzen badira, adierazitako baldintzetan aplikatuko dira).

Kuota nahikoa ez izateagatik kendu ez diren kenkariak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren likidazioetan aplikatu ahal izango dira. Aurreko ekitaldietan sortu eta aplikatzeke dauden kenkariak aplikatzera, kenkari horiek sortu ziren unetik aurrera zenbatuko dira 30 urteak.

21. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

APARTEKO MOZKINEN BERRINBERTSIOA ORAINGO EKITALDIAN

Orrialde honetako datuak informatiboak dira. 14. orrialdeko 1035 eta 1047 laukietako goitibeherakoetatik hartu dira.

37/2013 Foru Arauko 36. artikuluko azpimarratzeko edukiak : Aparteko mozkinen berrinbertsioa.

1. Lortu diren errentak zerga oinarrian sartu gabe gera daitezke, behin errenta horiek zuzenduta, hala dagokionean, foru arau honek 15. artikuluko 11. idatz zatian araututako balio galera monetarioaren zenbatekoari dagokionez, ustiapen ekonomikoei lotuta dauden ibilgetu material edo ukiezinaren edo inbertsio inbiliarioen ondare elementuak edo, bestela, eskualdatu aurretik saltzeko mantendutako aktibo ez korrante gisa sailkatu diren elementu horiek kostu bidez eskualdatzean.

Horretarako beharrezkoa da eskualdaketa ondoriotik lortutako zenbatekoa aurrean aipatutako ondare elementuetako batean berrinbertitzea hura eman edo eskura jarri den aurreko urtearen eta osteko hiru urteen arteko epealdiaren barruan.

Berrinbertsioaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko itxi edo erretiratzearen ondorioz hartutako obligazioei dagozkien kostuak, baldin eta berrinbertsio hori gauzatzen den aktibo atxikita badaude, haiek baloratzeko aintzat hartu edo ez.

Berrinbertsioa, gauzatzen den ondare elementuak baliagarri jartzen diren egunean egintzat joko da.

Finantza errentamenduko kontratuen helburu diren ondare elementuak badira, berrinbertsioa kontratua sinatu den egunean egintzat joko da, ondare elementu bakoitzaren eskurako balioaren zenbateko berarekin. Berrinbertsioaren ondorioak erosketak aukera gauzatzeak baldintzatuko ditu, baldintza suntsiarazle gisa

2. Zerga Administrazioak berrinbertsiorako plan bereziak onartu ahal izango ditu hori justifikatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean.

3. Berrinbertsioaren xede diren ondare elementuek zergadunaren ondarean egon behar dute, artikuluko honetako 1. idatz zatian ezarritako betekizunak betez, justifikatutako galerak salbu, bost urtean, edo, ondasun higigarriak badira, hiru urtean, berrinbertsioa gauzatzen denetik hasita, non eta ez duten bizitza baliagarri laburragoa, foru arau honetako 16. artikuluan xedatutakoaren arabera. Elementu horiek epealdia amaitu aurretik eskualdatzeak sartu gabeko errenta zatia zerga oinarrian sartzea ekarriko du, kasu honetan izan ezik: lortutako zenbatekoa eskualdaketa osteko hiru hileko epealdian aurreko 1. idatz zatian araututakoarekin bat etorritik berrinbertitzen den kasuetan.

4. Berrinbertsioa adierazitako epealdian egiten ez bada, epealdia amaitzen den zergaldiko zerga oinarrian sartuko dira ez-betetzea dagokien zenbatekoak, zerga oinarrian sartu gabe utzi direnak, eta euren zenbatekoaren ehuneko 15 gehituko zaie. (14. Orrialdeko (1109) laukia)
Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, Espainiako eta Europako interes ekonomikoko elkarteetan eta enpresen aldi baterako batasunetan, lortutako errenta positiboak dagokien zerga oinarriaren zatia bazkideei egotzi beharko zaie, foru arau honetako VI. tituluko III kapituluaren ezarritakoarekin bat etorritik, berrinbertsioa egiteko epealdia mugaeguneratu den zergaldian.

5. Berrinbertitutako kopurua eskualdaketa guztira lortutakoa baino gutxiago bada, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion proportziozko zatia soilik utz daiteke integratu gabe.

Artikulu honetan ezarritako araubidea ezin da bateratu eskualdatzearen emaitzako zenbatekoa berrinbertitzen den elementuei dagozkien bestelako zerga onurekin, amortizazio askatasuna, amortizazio azkarra eta baterako amortizazioa izan ezik.

6.. Berrinbertitutako kopurua eskualdaketan guztira lortutakoa baino gehiago bada, gaindikinari, egonez gero, 37/2013 Fako V. Tituluko III. kapituluaren araututa dauden inbertsioaren ziozko kenkariak aplikatu ahal izango zaizkio, edo gai izango da foru arau honetako 53. artikuluan aipatzen den erreserba gauzatzeko.

Kontzeptuak:

Eragiketaren kodea (1805 laukia): lauki honetan eskualdatutako ondare elementua zehaztu behar da ondoko gako hauek jarrita:

- 01 Ibilgetu ukiezina
- 02 Ibilgetu materiala: lurrak
- 03 Ibilgetu materiala: eraikinak
- 04 Ibilgetu materiala beste batzuk
- 05 Higiezineta inbertsioak

Berrinbertitzeko konpromisoa (1807 laukia): salmentaren edo besterentzearen guztirako zenbatekotik (1806 laukia) erakundeak 37/2013 Foru Arauko 36. artikuluan ezarritakoari lotuta eta bertan finkatutako epealdietan berrinbertitzeko konpromisoa hartu duen kopurua adierazi behar da.

Berrinbertsioaren zenbatekoa / Eskualdaketaren zenbatekoa (1809 laukia): salmentaren guztirako zenbatekotik zenbat berrinbertituko den zehaztu behar da ehunekoa adierazita (bi hamartarrekin).

37/2013 Foru Arauaren 40.9 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, noiz ere zerga oinarrian sartu nahi diren ibilgetu materialaren elementuak, ibilgetu ukiezinaren elementuak eta higiezineta inbertsioen elementuak eskualdatuz lortutako errenta positiboak nahiz aktibo ez korrontetzat jotako elementu salmentarako atxikiak eskualdatzean lortutako errenta positiboak, kenkari hau aplikatuko da, errenta positibo horien zenbatekoa dela muga, monetaren balio galtzearen zenbatekoa, hain zuzen ere, eskualdatutako elementuari buruz onartu den azkeneko legeko eguneratzea eginez geroztik gertatutakoa, edo elementua eskuratu zenetik gertatutakoa, baldin legeko eguneratzea onartu eta gero eskuratu bazen.

Eguneratze koefizienteen aplikazioa dela eta:

“Eskuraketa prezioa / Ekoizpen kostua / Hobekuntzak, eguneratuta” zutabearen zenbateko hauek jarri behar dira: ekitaldi bereko “Eskuraketa prezioa / Ekoizpen kostua / Hobekuntzak” zutabearen ageri direnak ekitaldiko eguneratze koefizienteaz biderkatzearen emaitzakoa.

“Amortizazio eguneratuak” zutabearen zenbateko hauek jarri behar dira: ekitaldi bereko “Egindako amortizazioak” zutabearen ageri direnak ekitaldiko eguneratze koefizienteaz biderkatzearen emaitzakoa.

Kontabilitateko balioa: eskuraketa prezioaren / ekoizpen kostuaren / hobekuntzen eta egindako amortizazioen arteko diferentzia da.

2002 laukia = 2000 laukia – 2001 laukia

Kontabilitateko balio eguneratua: eguneratutako eskuraketa prezioaren / ekoizpen kostuaren / hobekuntzen eta amortizazio eguneratuen arteko diferentzia da.

2005 laukia = 2003 laukia – 2004 laukia

Moneta zuzenketa (2006 gakoa): kontabilitateko balio eguneratuaren eta kontabilitateko balioaren kenketaren emaitza da.

2006 laukia = 2005 laukia – 2002 laukia

Garrantzizua

2012ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuez den bezainbatean, baldin eta balantzeak eguneratzeari buruzko ZPADaren 4. eta 5.1 artikuluen arabera eguneratu ahal direnetakoak badira (15/2012 ZPAD, abenduaren 28koa), monetaren balio galtzea dela-eta aplikatzeko den zuzenketa aplikatzekotan, 2012ko ekitaldia amaitu ostean sortzen den monetaren balio galtzeagatik dagokiona baizik ez da aplikatuko.

Ondare gai horiez den bezainbatean, eguneratuak izan edo ez, eskuratze balioa eta 2013 arteko amortizazio pilatua adierazi beharko dira (1995) eta (1996) laukitxoetan, eta ondorengo amortizazioak hurrengo ekitaldiei dagozkien laukitxoetan.

37/2013 Foru Arauaren 40.9 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, noiz ere zerga oinarrian sartu nahi diren ibilgetu materialaren elementuak, ibilgetu ukiezinaren elementuak eta higiezinako inbertsioen elementuak eskualdatuz lortutako errenta positiboak nahiz aktibo ez korrontetzat jotako elementu salmentarako atxikiak eskualdatzean lortutako errenta positiboak, kenkari hau aplikatuko da, errenta positibo horien zenbatekoa dela muga, monetaren balio galtzearen zenbatekoa, hain zuzen ere, eskualdatutako elementuari buruz onartu den azkeneko legeko eguneratzea eginez geroztik gertatutakoa, edo elementua eskuratu zenetik gertatutakoa, baldin legeko eguneratzea onartu eta gero eskuratu bazen.

Zenbait irizpide ezartzen diren abenduaren 28ko 15/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, balantzeen eguneratzea onartu zuena, aplikatzeko, Ogasun Zuzendaritzaren 1/2013 Jarraibidea, 5.3. atala: "Uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, bere 15.11 artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorritik, abenduaren 28ko 15/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera eguneratu daitezkeen ondare elementuen eskualdaketatik sortutako errenta positiboak zerga oinarrian sartzeari begira, bakar-bakarrik 2012ko ekitaldiaren amaiera datatik 11/13 aurrera gertatzen den monetaren balio galera kenduko da, zergadunak balantzeen eguneratzeaz baliatu nahiz ez baliatu.

Horrek guztiak ez du eragozten aparteko etekinen berrinbertsio osoaz nahiz partzialaz (uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, bere 22. artikuluan arautua) baliatzeko zergadunek daukaten aukera."

15/2012 ZPAD, 4. artikulua: Eguneratu daitezkeen elementuak..

"1. Ibilgetu materialeko elementuak eta higiezinako inbertsioak eguneratu ahal izango dira, Espainian nahiz atzerrian kokatuak. Establezimendu iraunkorra duten ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren ziozko zergadunen kasuan, eguneratu daitezkeen elementuhoriek establezimendu iraunkorrari atxikita egon behar dute.

2. Hauek ere eguneratu ahal izango dira:

a) Finantza errentamenduaren araubidean eskuratu diren ibilgetu materialaren eta higiezinako inbertsioen elementuak, Sozietateengaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 116. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen direnak.

Kasu horretan egunerapenak ondorioak izan ditzan, baldintza suntsiarazle gisa, erosteko aukera egikaritu beharko da.

b) Kontzesio erabakiei dagozkien ondare elementuak, enpresa kontzesiodunek aktibo ukiezintzat erregistraturikoak erregistraturikoak, enpresa horiek abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduan ezarritako kontabilitate irizpideak aplikatu behar badituzte. Agindu horretan, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen kontzesioak dituzten enpreseiegokitzeko arauak onartu dira.

3. Eguneratu daitezkeen elementu guztien eta dagozkien amortizazioen eguneratzea egin beharko da, higiezinaren kasuan izan ezik, higiezin bakoitza bereiz eguneratzea aukeratu ahal izango baita. Higiezinak eguneratzen direnean, lurzoruaren balioa eta eraikinaren balioa bereizi beharko dira.

4. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ziozko zerga dunen kasuan, eguneratu daitezkeen elementuek jarduera ekonomikoari atxikita egon beharko dute "

15/2012 ZPAD, 5.1. artikulua: "Balioa eguneratuko zaie elementu hauei: zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean jarri ondoren ixten den lehenengo balantzean ageri diren elementu eguneragarriak, (...) baldin eta ez badute zerga amortizazio osoa eginda.

Ondorio horietarako, egin behar ziren zerga amortizazioak hartuko dira, gutxienez ere."

Kontabilitateko mozkinak: guztirako zenbatekotik kontabilitateko balioa kentzearen emaitza da.

2007 laukia = 1806 laukia – 2002 laukia

Zerga kenkariak sortu dituzten amortizazioak (2008 laukia): lauki hau amortizazioen edota horniduren eta kontabilizatutako beste batzuen zati batek zerga kenkaririk sortu ez badu soilik bete behar da.

Errenta positiboa: 2008 laukian zerbait jarri bada, zenbateko hori kontabilitateko mozkinetik kendu behar da.

2009 laukia = 2007 laukia – 2008 laukia

Moneta zuzenketa (2010 gakoa): kontabilitateko balio eguneratuaren eta kontabilitateko balioaren kenketaren emaitza da.

2010 laukia = 2005 laukia – 2002 laukia

(2010) lauki honetako zenbatekoa ezin daiteke (2009) laukikoa baino handiagoa izan.

Programak lauki honetako zenbatekoa 14. orrialdeko 1035 laukira eramango du (Galera eta irabazien kontuaren emaitzaren gutxikuntza: Errenten zuzenketa moneta balioaleraren ondorioz).

Berrinbertsioaren ziozko salbuespena: honen zenbatekoa kalkulatzeko errenta positiboaren eta moneta zuzenketa arteko diferentzia berrinbertsio konpromisoaren ehunekoaz biderkatu behar da.
2011 laukia = 2009 laukia * 1809 laukia

Programak 14. orrialdeko 1047 laukira eramango du zenbatekoa (Galera eta irabazien kontuaren emaitzaren gutxikuntza: Berrinbertsioaren ziozko salbuespena).

22.A ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

APARTEKO MOZKINEN BERRINBERTSIOARI BURUZKO INFORMAZIOA HAINBAT EKITALDI

APARTEKO ETEKINAK BERRIRO ERE INBERTITZEAGATIK EGOKITZEN DIREN ZERGA ONUREN GALERA

ENPRESA BERREGITURATZEKO PROZESUAREN ERAKUNDE ONADURAK

37/2013 F Aren VI. TITULUKO VII. KAPITULUAN JASOTAKO ARAUBIDE BEREZIAK

Aparteko mozkinen berrinbertsioa (24/1996 FA, 22. art. Eta 37/2013 FA, 36 art.)

Taula hau nahitaez bete behar dute oraingo ekitaldian zein aurreko batean 24/1996 Foru Arauko 22. artikuluan edo 37/2013 Foru Arauko 36. artikuluan xedatutakoari heldu eta zerga oinarrian kostu bidezko eskualdaketen ondoriozko errentak sartu ez dituzten erakundeek, baldin eta oraindik kopururen bat badute berrinbertitu gabe.

Izan ere, hauxe xedatu da aipatutako artikuluetan: errentak zerga oinarrian ez integratzeko beharrezkoa da lortutako zenbatekoa berrinbertitzea ondare elementua eman edo eskura jarri den aurreko urtearen eta ondoko hiru urteen arteko aldian, ezarritako baldintzei lotuta.

Zerga onuren galera, aparteko etekinak berriro inbertitzeagatik (37/2013 F Aren 36.4 eta 36.5 art.)

Atal honetan ez-betetzeak adieraziko dira, bai inbertsioaren xede izan ziren elementuak arauak ezarritako epea bete baino lehen eskualdatzeagatik gertatu diren ez-betetzeak bai berrinbertsioa epe barruan ez egiteagatik gertatutako ez-betetzeak.

Lehenengo kasuan (36.4 art.), integratu ez den errenta zatia integratuko da zerga oinarrian [(2376) laukitxoan].

Bigarren kasuan (36.5 art.), berrinbertitzeko epea amaitu zen zergaldiko zerga oinarrian integratuko dira (2376 laukitxoko zerga oinarrian integratu ez ziren zenbatekoak, zenbateko horien ehuneko 15 gehituz (2377) laukitxoan.

(2374) laukitxoan, eskualdatutako ondare elementuaren izaera zehaztuko da, ondoren zehazten diren gako kodeen arabera:

- 01 Ibilgetu ukiezina
- 02 Ibilgetu materiala: lurrak
- 03 Ibilgetu materiala: eraikinak
- 04 Ibilgetu materiala beste batzuk
- 05 Higiezineta inbertsioak
- 06 Finantza partaidetzak

(2375) laukitxoan, adieraziko da zein ekitalditan gertatu zen zerga onura izan zuen eskualdaketa.

37/2013 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, 36.4 eta 36.5 paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da, baldin 24/1996 Foru Arauaren 22. artikuluan zerga onura finkatzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen ez badira; beraz, adierazitako eran erregularizatuko da.

Erasandako bazkide egoiliarrak (4030) laukitxoan markatuko du, noiz ere 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluaren VII. kapituluaren xedatutako araubide bereziari lotutako sozietate partizipatu ez-egoiliarrak diren, 41/2014 Foru Dekretuaren 43. artikuluen 4. eta 6. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Enpresa berregituratze prozesuaren erakunde onadurak

2. orrialdeko 054 laukia markatzen bada, taula hau nahitaez bete behar da.

Bat egite, zatiketa eta balore trukeen araubidea

Erasandako bazkide egoiliarak (4030) laukitxoak markatuko du, noiz ere 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluaren VII. kapituluaren xedatutako araubide bereziari lotutako sozietate partizipatu ez-egoiliarak diren, 41/2014 Foru Dekretuaren 43. artikuluen 4. eta 6. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorritik.

37/2013 Faren VI Tituluko VII. Kapituluaren jasotako araubide bereziak

Atal hau beteko da sozietateen xurgatze, bat-egite edo banantzearen ondorioz, xurgatutako, bat egindako edo banandutako sozietateetatik datozen enkarietarako eta/edo zerga oinarri negatiboen konpentsazioetarako eskubidea dagoen kasuetan. Horretaz gain, honakoak adieraziko dira: aplikatzen den enkaria edo zerga oinarri negatiboa eragin zuten xurgatutako edo banandutako sozietateen datuak, kontzeptua, sortu zeneko ekitaldia, sortutako zenbatekoa eta aplikatutako zenbatekoa.

22.B ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

BIRBALORAZIO ERRESERBARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA 15/2012 ZPAD

BALIO JAKIN BATZUK EDUKITZEKO ERAKUNDEEN KARGA BEREZIA

Orrialde honetako datuak informatiboak dira. 2. orrialdeko (059) laukietako goitibeherakotik eta 16 orrialdeko (1541) laukietako goitibeherakotik hartu dira.

Abenduaren 28ko 15/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren balantzeak eguneratzeko aukera hartu zuten erakundeek, birbalorazio erreserbari buruzko taula informatiboa bete behar dute.

Erreserbaren hasierako zuzkidura, (2450) laukia, eta aurreko ekitaldietako beste aplikazio batzuk, (2451) eta (2458) laukiak, betetzeaz gain, bidezkoa denean (2454), (2455), (2459) eta (2456) laukiak beteko dira, ekitaldi honetako aplikazioen kopurua eta haien zehaztazuna emanez.

Aitortutako ekitaldian ez baldin bada aplikaziorik egin errebalorizazio erreserban, (2457) laukian "X" jarriko da.

Balio Jakin batzuk Edukitzeko Erakundeen Karga Berezia

"X" bat markatuko dute (7540) laukitxoan 37/2013 Foru Arauaren hamahirugarren xedapen iragankorrari heltzen dioten erakunde atzerriko balioak edukitzekoek. Horiei ez zaie aplikatuko foru arau horren hamalagarren xedapen gehigarriaren 8. paragrafoan Balio Jakin batzuk Edukitzeko Erakundeen karga berezia dela-eta araututakoa.

Gainerako kasuetan, Balio Jakin batzuk Edukitzeko Erakundeek (7537) laukitxoan adieraziko dute erakunde ez-egoiliarren partizipazioaren kontabilitate balioa, 37/2013 Foru Arauaren hamalagarren xedapen gehigarriarekin bat etorritz, hartara karga berezia kalkulatzeko, hala balegokio.

22. C. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ZUZENKETAK EMAITZAREN APLIKAZIOAN (37/2013 FA, 51., 52. ETA 53. ARTIKULUETAKO ERRESERBAK)

Orrialde honetan ageri diren datuak informazioa emateko baizik ez dira. 14B orrialdeko (1527), (1529), (1530), (1531), (1532) eta (1533) laukitxoetan dauden goitibeherakoetatik sartu dira.

Enpresa kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa (37/2013 Foru Arauaren 51. artikulua)

Taula honetara iristeko, 14 B orrialdearen (1527) laukitxoaren eskuinaldeko goitibeherakotik sartu behar da.

Datu hauek adieraziko dira: aurreko ekitaldiko zerga ondorioetarako ondare garbiari buruzko datuak, (7501) laukia; eta enpresa kapitalizazioa sustatzeko erreserbarentzat zuzkidura egin den ekitaldietako datuak, (7503) laukia.

Zerga ondorioetarako ondare garbia kalkulatzeko, 37/2013 FAko 47. artikuluko 2. idatz zatian araututa dagoen kontzeptua, ekitaldiko emaitza ere barnean, hartuko da. Era horretan kalkulaturako zerga ondorioetarako ondare garbian gehikuntza ez badago, ez da aplikatuko erreserba hau.

37/2013 FAko 47. artikuluko 2. idatz zatian araututa dagoen kontzeptua, ekitaldiko emaitza ere barnean, zerga ondorioetarako ondare garbian gehikuntza badago, 37/2013 FAko 51. artikuluko 2. idatz zatian araututa dauden zuzenketak kontuan hartuko dira.

Doitu beharreko ondare elementuek aitortutako ekitaldian duten kontabilitate balioa alderatu beharreko aurreko ekitaldikoaren berdina edo handiagoa bada, (7501) eta (7503) laukietan adierazi beharreko zerga ondare garbiaren zenbatekoari hau kendu beharko zaio: elementu horiek dagokien ekitaldian duten kontabilitate balioa.

Doitu beharreko ondare elementuek aitortutako ekitaldian duten kontabilitate balioa alderatu beharreko aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa bada, (7501) eta (7503) laukietan adierazi beharreko zerga ondare garbiaren zenbatekoari ez zaio kendu beharko elementu horiek dagokien ekitaldian duten kontabilitate balioa.

Aurreko ekitaldietako (n-1) eta aitortutako ekitaldiko (n) nahitaezko erreserben saldoa (7542) eta (7543) laukietan adieraziko da, hurrenez hurren.

Aitortutako ekitaldirako, (7504) laukian, programak baliozkotu egiten du zerga ondorioetarako ondare garbiaren hazkundea, gehienez ere era honetan: (7504) laukitxoa = (7503) laukitxoa - (7501) laukitxoa - [(7543) laukitxoa - (7542) laukitxoa], kontuan hartu gabe nahitaezko erreserbetan egindako zuzkidurengatik eragindako hazkundea (kalkuluan (7543) eta (7542) laukien zenbatekoa baino ez da kontuan hartuko, kasu honetan: (7543) laukia \geq (7542)). Zergadunak pizgarria sortzen duen gehikuntza garbia adierazi behar du (7504) laukian, 11. orrialdeko (523) laukiko erreserbako jartzen duen kopuruaren arabera. (7505) laukitxoan, programak eragindako zerga oinarriaren murrizketaren zenbatekoa kalkulatu du (ondare garbiaren hazkundearen % 10; eta mikroenpresa eta enpresa txikien kasuan, % 14). (7507) laukitxoan, zergadunak zerga oinarriaren murrizketaren zenbatekoa adierazi beharko du, egungo ekitaldian aplikatutako murrizketarena, hain zuzen.

Murrizketaren aplikazioak ezin du ekarri zerga oinarri negatiborik ez zerga oinarri negatiboaren gehikuntzarik. Hala ere, zerga oinarria nahikoa ez izategatik kendu ezin diren zenbatekoak hurrengo zergaldietan kendu ahal izango dira, muga bera errespetatuz.

Programak eraman egiten ditu (7511) laukitxotik 14 B orrialdeko (1527) laukitxora egungo ekitaldian zerga oinarrian murrizketa gisa aplikatu behar dituen zenbatekoen batura.

Irabaziak berdintzeko erreserba berezia (37/2013 FA, 52. art.)

Lauki honetara iristeko, 14 B orrialdeko (1528) eta (1529) laukitxoaren eskuinaldean dagoen goitibeherakotik sartu behar da.

Zerga ondorioetarako 2018 ekitaldiko ondare garbiari dagozkion datuak beteko dira —(7513) laukitxo—, 37/2013 FAren 47.2 artikuluan emandako definizioaren arabera, eta orobat irabaziak berdintzeko erreserba berezia zuzkitu den ekitaldi bakoitzari dagozkionak —(7514), (7515), (7516) eta (7517) laukitxoak—. Programak lauki horretako gainerako laukitxoak kalkulatu ditu, eta eraman egingo du (7517) laukitxoak laukiko lehenbiziko ilararako emandako balioa 14 B orrialdeko (1529) laukitxora, zerga oinarriaren murrizketa gisa, eta (7521) laukitxo 14 B orrialdeko (1528) laukitxora, zerga oinarriari gehitutako gisa.

Ekintzailtza sustatzeko erreserba berezia eta produkzio jarduera indartzea (37/2013 FA, 53. artikulua).

Lauki honetara iristeko, 14 B orrialdeko (1530) laukitxoaren eskuinaldean dagoen goitibeherakotik sartu behar da.

Zerga ondorioetarako aitortutako ekitaldiko ondare garbiari buruzko datua emango da; 37/2013 Foru Arauaren 47.2 artikuluan definizioaren arabera kalkulatu da, (7523) laukia.

Aitortutako ekitaldirako, (7525) laukia beteko da: murrizketa kalkulatzeko erabiliko den erreserba berezirako zuzkiduraren zenbatekoa adieraziko da, 37/2013 Foru Arauaren 53.1 artikuluan ezarritako mugak kontuan izanda (kontabilitate emaitza positiboaren % 60, zergaldiko zerga oinarriaren % 45; erreserbaren saldoak ezin du gainditu zerga ondorioetarako ondare garbiaren % 50), eta programak sortutako zerga oinarriaren murrizketa kalkulatu du, (7526) laukia.

Gainerako ekitaldietarako, erreserbaren materializazioari dagokion informazioa ere beteko da. "Materializatzen den elementua" zutabearen, aukera bat edo hainbat markatu ahal izango dira, erreserba 37/2013 FAren 53.2 artikuluan aipatzen diren helburuetako zeinetarako bideratu den ario.

Programak eraman egingo du laukiko lehenbiziko ilararako emandako (7526) laukitxoko balioa 14 B orrialdeko (1530) laukitxora.

Emaitza aplikatzeari dagokion arloan zuzenketen kariaz egindako erreserbak integratzea

Lauki honetan, zeinetara 14 B orrialdeko (1531), (1532) eta (1533) laukitxoetan eskuinaldean dauden goitibeherakoetako edozeinetatik sartzten baita, zenbateko hauek jasotzen dira: hain zuzen, emaitza aplikatzearen arloan zuzenketak aplikatzeko eskatzen diren baldintzak ez betetzeagatik itzuli beharreko zenbatekoak.

Noiz ere gertatzen den kenkaria egin den zergaldia amaitu eta bost urteko epea baino lehenago xedatu izana dagokion erreserba, eta, hartara, zerga ondorioetarako ondare garbia murriztu izanagatik enpresa kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa egiteko 37/2013 Foru Arauaren 51. artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzea, orduan, aplikatutako kenkariaren dagokion zati proportzionala zerga oinarrian integratzeaz gain, dagozkion berandutze interesak gehitu behar zaizkie horrela ateratzen den kuotari. Programak eraman egingo du (2718) laukitxoaren zenbatekoa, noiz ere (2716) laukitxoan adierazitako artikulua 14 B orrialdeko (1531) laukitxoko 51 den, baina, orduan, zergadunak 16. orrialdeko (1561) laukitxoan sartu beharko ditu dagozkion interesak.

Baldin eta ez-betetze horrek irabaziak berdintzeko erreserba bereziarekin badu zerikusia (37/2013 FAren 52. artikulua), dela kendutako zenbatekoak aplikatzeko behar adina zerga oinarri negatibo ez sorrarazteagatik, dela erreserba xedatu izanagatik kenkaria egin zeneko zergaldia amaitu zenetik bost urteko epean zerga oinarriari zenbatekorik gehitu gabe, orduan, aplikatu edo xedatu ez diren zenbatekoak zerga oinarrian gehitzeaz gainera, zuzenketa positibo gehigarri bat egingo da: % 10ekoa, baldin behar beste zerga oinarri negatibo sorrarazi ez badira; eta % 5ekoa, zergaldiaren azken egunetik igarotako urte bakoitzeko (irabaziak berdintzeko erreserba berezia zergaldiko kontabilitate emaitza positiboaren kontura zuzkitu den zergaldiaren azken egunetik, esan nahi da), noiz ere irabaziak berdintzeko erreserba berezia lehen aipatutako epe hori baino lehenago xedatu den. Programak egin beharreko integrazio osoaren zenbatekoa kalkulatu du

(2720) laukitxoan (zerga oinarria gehi zuzenketa gehigarria), eta 14 B orrialdeko (1532) laukitxora eramango du zenbateko hori, noiz ere (2716) laukitxoan adierazitako artikulua 52 den.

Baldin eta ez-betetzea sortu bada ez eratzegatik ekintzailatza sustatzeko eta produkzio jarduera indartzeko erreserba berezia (37/2013 F Aren 53. artikulua) erreserba hori zergaldiko kontabilitate emaitza positiboaren kontura zuzkitu zen zergaldiaren azken egunetik hasita hiru urteko epean, edo erreserba hori epe horren barruan xedatzeagatik, zerga oinarriari gehituko zaio gauzatu ez diren zenbatekoen % 60 edo erreserba xedatu denean zerga oinarria murriztu duten zenbatekoen % 60. Horrez gain, zuzenketa positibo gehigarria egingo da, % 15ekoa, erreserba gauzatzen ez bada. Zuzenketa gehigarri hori % 5ekoa izango da, erreserba berezia zergaldiko kontabilitate emaitza positiboaren kontura zuzkitu zen zergaldiaren azken egunetik igarotako urte bakoitzeko, noiz ere erreserba hori hiru urteko epe hori amaitu baino lehen xedatu bada. Programak egin beharreko integrazio osoaren zenbatekoa kalkulatu du (2720) laukitxoan (oinarria gehi zuzenketa gehigarria), eta 14B orrialdeko (1533) laukitxora eramango du zenbatekoa, noiz ere (2716) laukitxoan adierazitako artikulua 53 den.

23. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

GALEREN KONPENTSAZIOAREN TAULA

Orrialde honetako datuak informatiboak dira. Programako hainbat laukitak hartu dira.

- Ondare sozietatea izanez gero: 15. orrialdeko hainbat goitibeherakotatik (8036 edota 8039 laukia).
- Ondare sozietatea izan ezean: 14. orrialdeko 1505 laukiko goitibeherakotik.

GALEREN KONPENTSAZIOA

a) ONDARE SOZIETATEAK (PFEZi buruzko 33/2013 FA, 66. artikulua)

- Etxebizitzen ondoriozko kapital higiezinaren etekinak eta kapital higikorren etekinak. PFEZi buruzko 33/2013 Foru Arauko 63 artikuluko a) eta b) letretan aipatutako aurrezkiaren etekinak, zergaldi batekoak, beraien artean soilik integratu eta konpentsatzearen emaitza saldo negatiboa bada, hurrengo lau urteetan sortzen diren aurrezkiaren etekinen saldo positiboarekin soilik konpentsatu ahal izango da.

Oraingo ekitaldian konpentsatutako kopurua (8101, 8107, 8113 eta 8122 laukietako zenbatekoa) 15. orrialdeko 8036 laukian egotzitakoa bera izan behar da.

- Aurrezkiaren zerga oinarriko ondare irabaziak eta galerak. PFEZi buruzko 33/2013 Foru Arauko 63. artikuluko c) letran aipatutako ondare irabaziak eta galerak, zergaldi batekoak, beraien artean soilik integratu eta konpentsatzearen emaitza saldo negatiboa bada, hurrengo lau urteetan sortzen diren mota bereko irabazien eta galeren saldo positiboarekin soilik konpentsatu ahal izango da.

Oraingo ekitaldian konpentsatutako kopurua (8104, 8110, 8116 eta 8123 laukietako zenbatekoa) 15. orrialdeko 8039 laukian egotzitakoa bera izan behar da.

Konpentsazioek gehieneko muga edukiko dute ekitaldi bakoitzean, eta ezin aplikatu izango dira epealdi horretatik kanpo ondoko ekitaldietako errenta negatiboak metatuta.

b) Gainerako Sozietateak (37/2013 FA, 55. artikulua eta 2/2018 FA, 4. xedapen iragankorra)

Taula hau nahitaez bete behar dute zerga oinarri negatiboak konpentsatzen dituzten edo aurreko ekitaldietatik konpentsatu gabeko kopuruak dauzkaten erakundeek, bai eta oraingo ekitaldian zerga oinarri negatiboa izan duten erakundeek ere. Taula behar bezala betetzeko kasu egin behar zaie jarraibide hauei:

- Ekitaldi bakoitzeko zerga oinarria adierazi behar da (konpentsatzeko kopuruak, oraingo ekitaldian konpentsatzen direnak edo hurrengo ekitaldietarako konpentsatzeko geratzen direnak, badaude bakarrik).
- Aurreko ekitaldietan konpentsatutako kopuruak adierazi behar dira, egonez gero.
- Oraingo ekitaldian konpentsatutako kopurua adierazi behar da, egonez gero.
- Hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko dagoen kopurua adierazi behar da, egonez gero, kontuan edukita kopuru hori ekitaldiaren hasieran konpentsatzeko zeuden kopuruen eta hartan konpentsatutako kopuruaren arteko diferentzia izango dela.
- Oraingo ekitaldian konpentsatutako kopurua (6079 laukia) 14. B orrialdeko 1505 laukian (2801 kooperatiba sozietateentzat) egotzitakoa bera izan behar da.
- 6080 laukian hurrengo ekitaldietarako konpentsatzeko utzitako kopuruen batura jarri behar da.

37/2013 Foru Arauaren 55. artikuluekin bat etorritik, likidatu edo autolikidatu diren zerga oinarri negatiboak hurrengo 30 urteetan amaitzen diren zergaldietako errenta positiboekin konpentsa daitezke; konpentsazioaren aurreko zerga oinarri positiboaren % 50eko muga ezarriko da. Muga % 70ekoa izango da mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat.

Muga horiek ez zaizkio aplikatuko murrizketa edo itxaroteen errenten zenbatekoari, horiek zergadunaren hartzekodunekin egindako akordio baten ondorio badira, eta ezta ere erakundea azkendu den zergaldian, azkentzea araubide berezi baten mendeko berregituratze prozesu baten ondorioz gertatu ez bada.

2/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen iragankorraren arabera, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiaren hasieran konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak 55. artikuluan xedatutakoaren arabera konpentsatuko dira, eta konpentsazioaren epea 30 urte izango da, oinarri horiek sortu ziren unetik zenbatzen hasita.

24. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ZERGAK ARABAKO FORU ALDUNDIARI ETA BESTE FORU ALDUNDIEI, NAFARROARI ZEIN ESTATUARI ORDAINTZEA

MERKATARITZA TALDEAK (MERKATARITZAKO KODEA, 42. ARTIKULUA) ETA ESTABLEZIMENDU IRAUNKOR BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN EZ-EGOILIARRAK

Orrialde honetako datuak informatiboak dira.

- “Zergak Arabako Foru Aldundiari eta beste foru aldundiei, Nafarroari zein Estatuari ordaintzea” ataleko informazioa 16. orrialdeko 1557 laukiko goitibeherakotik hartu da (zergak Arabako Foru Aldundiari soilik ordaintzen ez dizkioten erakundeak).
- “Merkataritza taldeak (Merkataritzako Kodea, 42. artikulua)” atalekoa 2. orrialdeko 040 laukiko goitibeherakotik hartu da (merkataritza talde bateko kide diren erakundeak).
- “Establezimendu iraunkor bat baino gehiago dituzten ez-egoiliarak” ataleko informazioa 2. orrialdeko 6601 laukiko goitibeherakotik hartu da (baldintza hori betetzen duten erakundeak).

Zergak Arabako Foru Aldundiari, beste foru aldundiei, Nafarroako Komunitateari eta Estatuari ordaintzea

Zergak Estatuari, Euskal Autonomia Erkidegoko foru administrazioei edota Nafarroako Foru Komunitateari batera xedapen hauetan arautzen da: Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartu duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea eta Nafarroako Foru Komunitatearekiko Ekonomia Hitzarmena onartu duen abenduaren 26ko 28/1990 Legea (Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Ekonomia Hitzarmena aldatzen duen uztailaren 15eko 25/2003 Legea eta 25/2003 Legearen osagarria den uztailaren 15eko 10/2003 Lege Organikoa).

Merkataritza taldeak (Merkataritzako Kodea, 42. art.)

Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri erakunde aitortzailea merkataritza talde bateko kidea bada (2. orrialdean x batez markatu behar da 040 laukia), nahitaez adierazi behar ditu atal honetan eskatzen diren datuak.

Horren arabera, zerga taldeetako erakundeek nahitaez bete behar dute atal hau, merkataritza taldeko erakunde guztiak zehaztu behar baitituzte, zerga taldean egon zein ez egon.

Establezimendu iraunkor bat baino gehiago dituzten erakunde ez-egoiliarak.

Erakunde aitortzailea establezimendu iraunkor bat baino gehiago dituen ez-egoiliarra bada (x batez markatu behar da 2. orrialdeko 6601 laukia), nahitaez adierazi behar ditu atal honetan eskatzen diren datuak.

32 - 43 BITARTEKO ORRIALDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ASEGURU ERAKUNDEAK ETA BGAEak

KONTABILITATEA

Orrialde hauetan aseguru erakundeek eta BGAEek beren kontabilitateko informazioa jaso behar dute; honela:

32 - 35 bitarteko orrialdeak. Balantzea.

36 - 40 bitarteko orrialdeak. Galeren eta irabazien kontua.

41 - 43 bitarteko orrialdeak. Aldaketen egoera norberaren ondarean. Eraitzen banaketa. Egindako eragiketen bolumena.

Orrialde hauetan aseguru erakundeek bete behar dituzten laukiak (A) edo (A,B) bezala identifikatuta daude, eta BGAEek bete beharreko laukiak, (B) edo (A,B) bezala

44 - 48 BITARTEKO ORRIALDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

TALDE INBERTSIOKO ERAKUNDEAK

KONTABILITATEA

Orrialde hauetan talde inbertsioko erakundeek beren kontabilitateko informazioa jaso behar dute; honela:

44. orrialdea Balantzea: aktiboa.

45. orrialdea Ondarea eta pasiboa. Ordena kontuak.

46. orrialdea Galeren eta irabazien kontua.

47. eta 48. orrialdeak Aldaketen egoera norberaren ondarean. Eraitzen banaketa. Egindako eragiketen bolumena.

49 - 57 BITARTEKO ORRIALDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK
KOOPERATIBAK, KREDITU EDO ASEGURU KOOPERATIBAK IZAN EZIK
KONTABILITATEA

49 - 52 bitarteko orrialdeak: Balantzea.

Adierazten diren kontuen eta kontu taldeen saldoak eman behar dira, aktibokoenak zein ondare garbikoenak eta pasibokoenak, subjektu pasiboaren ekitaldi ekonomikoaren amaierako kontabilitate erregistroetan ageri diren bezala.

53. eta 54. orrialdeak: Galeren eta irabazien kontua.

Eragiketa jarraituen eta etendako eragiketen kontuen eta kontu taldeen saldoak eman behar dira, subjektu pasiboaren ekitaldi ekonomikoaren amaierako kontabilitate erregistroetan ageri diren bezala.

55 - 57 bitarteko orrialdeak: Aldaketen egoera ondare garbian.

Atal honetan, ondare garbiaren aldaketen egoeraren berri emateaz gainera, 501 - 518 bitarteko laukietan emaitzen aplikazioari buruzko informazioa eman behar da, honi erantsitako eskemari jarraituz, bai banaketaren oinarriari dagokionez, bai banatutako kopuruaren osaerari dagokionez. Galerak eduki dituzten erakundeek erreserbak banatzen badira bakarrik bete behar dute atal hau. Egindako eragiketen bolumena adierazi beharko da, (4600) laukia.

58. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

HAUTAPENAK

Orrialde hau zergaren aitorpenean dago, hartara 37/2013 FAren 128. artikuluan arautzen diren aukerak baliatu ahal izateko.

128. artikulua. Autolikidazioa aurkeztean egin behar diren hautapenak.

1. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 115. Artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoa aplikatzeko, zerga honen autolikidazioa aurkezten denean hautapen hauek egin behar dira:

- a) Finantza errentamenduko kontratu batzuen zerga araubidea (18.artikulua).
- b) Hidrokarburoen esplorazioan, ikerketan eta ustiapenean aritzen diren erakundeen aktibo ukigarrien eta ukiezinen eta ikerketako gastuen amortizazioagatik kenkaria aplikatzea (20. artikuluko 3. Idatz zatia).
- c) Amortizatzeko askatasuna, amortizazio azeleratua eta baterako amortizazioa (21. artikulua).
- d) Mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek kaudimengabeziagatik kredituen narriaduren ondoriozko galerak osorik kentzea (22. artikuluko 3. idatz zatia).
- e) Finantza merkataritzako funtseko zenbatekoen zerga oinarriaren murrizketa (24. artikulua).
- f) Merkataritzako funtsaren zerga oinarriaren murrizketa (25. artikulua).
- g) Agortze faktorea meatzaritzako jardueretan (28. artikulua).
- h) Agortze faktorea hidrokarbu guneak arakatu, ikertu eta ustiatzeko jardueretan (29. artikulua).
- i) Aurrezki kutxen ongintzarako eta gizarte ekintzarako kopuruen kenkaria (30. artikulua).
- j) Kenkariaren gehikuntza garraiogailuak erabiltzeak eragindako gastuengatik (31. artikuluko 3. idatz zatiko a) letrako laugarren paragrafoa).
- k) Mikroenpresen kasuan, 32. artikuluko 4. idatz zatian araututakoa aplikatzea.
- l) Enpresaren beraren jabetza intelektuala edo industrialia erabiltzeagatik murrizketa (32. artikuluko 5. idatz zatia).
- m) Aparteko mozkinen berrinbertsioa (36. artikulua).
- n) Jabetza intelektuala edo industrialia ustiatzeagatik murrizketa (37. Artikulua, 1.tik 4.era idatz zatiak).
- ñ) Kuotaren ordainketa geroratzea egoitza edo ondare elementuak Europar Batasuneko beste estatu batera aldatzeagatik (41. Artikuluko 2. idatz zatia).
- o) Emaitzaren aplikazioaren zuzenketak (IV. tituluko V. kapitulua).
- p) Epekako edo prezio geroratuko eragiketetan, errentak 54. Artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoaren arabera integratzea.
- q) Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioa (55. artikulua).
- r) Atzerriko zergen kenkaria (60. artikuluko 5. idatz zatia).
- s) V. tituluko III. kapituluko kenkariak.

t) Kuotaren ordainketa geroratzea 102. artikuluko 1. idatz zatiko a) eta c) letretan ezarritako kasuetan.

u) 102. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako geroratze araubideari uko egitea.

v) Hamabosgarren xedapen gehigarriko kenkariak.

2. Zergaren autolikidazioan, aurreko idatz zatian aipatutako hautapenak Zergaren aitortzea nork bere borondatez aurkezteko epealdia amaitutakoan aldatu ahal dira, baldin eta Zerga Administrazioak errekerimendurik egiten ez badu.

Hala ere, borondatezko epealdia amaitutakoan ezin izango dira aldatu aurreko idatz zatiko e), f), j), k), l), ñ), o), r), s), t), u) eta v) letretako hautapenak Zergaren autolikidaziorako.

41/2014 Foru Dekretuko 48. Artikulua: Hautapenak zuzentzea

1. Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, eta r) letrari dagokionez, ordezkotako autolikidazioetan ezin dira aldatu aplikatutako kopuruak epealdiaren barruan aurkeztutako autolikidazioaren kuota likidatzen murrizten badute.

2. Zergadunek noiznahi zuzendu ahal dituzte euren autolikidazioak zerga oinarria edo Zergaren kuotaren murrizketa eragiten duen hautapenen bat ezeztatzeko, baldin eta badakite horretarako ezarritako guztia ez dela bete eta Zerga Administrazioak alde aurreko errekerimendua egin ez badu.

41/2014 Foru Dekretuko 49. Artikulua: Autolikidazioa epez kanpo aurkeztea

Zergaren autolikidazioa nork bere borondatez aurkezteko epealdian aurkeztu ez duten zergadunek ezin izango dituzte egin Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren hautapenak.

Gainera, Zerga Administrazioak errekerimendua egin ondoren ezin dituzte egin Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan aipatzen diren gainerako hautapenak.

AUTOLIKIDAZIOA	ERREKERIMENDUA	1. PARAGRAFOKO AUKERAK	2. PARAGRAFOKO AUKERAK
EPE BARRUAN AURKEZTU DA	EZ	Zuzendu daitezke	Soilik zuzen daitezke kasu hauetan: <ul style="list-style-type: none">▪ Pizgarrien ziozko kenkariak frogatzen direnean ordezkotako aitortzean (baina geroko ekitaldietan aplikatzeko)▪ Erregularizazioa egiten denean baldintzak ez betetzeagatik.
	BAI	Ezin dira zuzendu	Ezin dira zuzendu
EPEZ KANPO AURKEZTU DA	EZ	Egin daitezke	Ezin dira egin
	BAI	Ezin dira egin	Ezin dira egin

Programaren funtzionamendua

58. orrialdean, 128. artikuluko aukerak zerrendatu dira, eta bereizi egin dira 2. paragrafoaren lehenbiziko lerroaldean zerrendatzen direnak eta bigarren lerroaldean zerrendatzen direnak.

Aukerak ondo baliatzeak zer garrantzi duen ikusirik, programak 58. orrialdea agertzen dio zergadunari, baldin eta aitortpena baliozkotzen badu.

Zergadunak ez badu aukera bat ere baliatu nahi, nahikoa du 58. orrialdeko proposamena onartzea ezer markatu gabe, "Onartu" botoia sakatuz.

Programak errorea emango du noiz ere zergadunak laukitxoren bat betetzen duen eta horrek, berez, 58. orrialdean markatu gabeko aukera bat baliatzea dakarren. Halaber, errorea emango du, noiz ere, 58. orrialdeko aukeraren bat markaturik, ez duen gero aitortpenean hari dagokion laukitxoa (edo laukitxoak) bete.

59. ORRIALDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

OHARRAK

AURKEZTUTAKO ATXIKIPENEN ZIURTAGIRIEN ZERRENDA

Finantza sarrerak eta bestelakoak direla-eta erakunde atxikitzaileek erakunde aitortzaileari egindako atxikipenen eta konturako sarreren zerrenda aurkeztu beharko da (higiezinak alokatzeagatik atxikitako kopuruak salbuetsita daude).

BESTE ZENBAIT OHAR

Era berean, zergadunak egoki deritzen ohar guztiak egin ahal izango ditu aitorpenean jasotako edozein puntu argitzeko.